

niker!

txorierriko aldizkaria

**Robe Iniesta,
Extremoduro
taldeko abeslaria:**

**“Nahiago dut
jendea
ausnarketara
bultzatu”**

Prestakuntza programak

Alkarbidet

Euskara teknologiatik harrituta

Euskararen sustapena enprean

Sentimenduetatik kanpokoak

Euskararen sustapena udalaren

Hirukuntza normalizatzen

Elkarlanean lortu da

Euskara da gure konpromisoa, ilorri dela eta. Inoiz baino gehiago erabili behar da, eta hori dela eta Euzkadiko Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak ez dute inongo euskararen sustapen bidera bermatzen.

Euskara ez da inongo erakunde, erakundeak inongo erakunde izan behar du. Gurea da Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen.

Prestakuntza programak. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Alkarbidet. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Euskararen sustapena enprean. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Erakundeak inongo erakunde izan behar du. Gurea da Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen.

Prestakuntza programak. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Euskararen sustapena enprean. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Alkarbidet. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Euskararen sustapena enprean. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Prestakuntza programak. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Euskararen sustapena enprean. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

Alkarbidet. Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen duen programa da, eta hori dela eta Euzkara Foruak eta Euzkaleren erakundeak bermatzen du.

1999-2003

Lau urte euskalgintzan

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatza, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Erredakzio taldea: Juantxu Bilbao,
Fernando Larrondo, Jose Angel
Mentxaka, Alberto Legarreta, Mari
Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, Saionara eta Maripi,
Patxi Gaztelumendi, Arantzazu
Mendiguren, Bihotz Bakartien
klubeko kidea.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Oihana Astobietta, Puri Martinez,
Lourdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Atotz Goikoetxea,
Juan Luis Goikoetxea, Fernando
Olabarrieta, Arrekikili, Jabi Agirre,
Eider Bilbao, Jon Ander Rola, Ane
Miren Askolizaga, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Josu
Ziordia.

Maketzaileak: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkariaren adierazi-
tako esanaren edota eritxien
erantzukizunik.



Euskara Institutua



Euskara Institutua
Euskara Institutua

diruz lagundutako aldizkaria



10 Martxelo Otamendi



13 Sander



14 Zeramikak tailerra



27 Txorierritarrek munduan



12 Anne Skytta



20 Larrakoetxe herri kirol taldea

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Aikor!i gutunak 6Laburrak eta albisteak 10 Gurean
izan da Martxelo Otamendi 12Anne Skytta 13Gaztea eta...
Sander 14Zeramika tailerra 16Robe Iniesta 20Larrakoetxe
herri kirol taldea 22Baserri mundua 23Teknologia 24Loiu eta
Derioko jaiak 25Sondikako jaiak 26Txorierrri ezagutu
27Txorierritarrek munduan 28Sukaldaritza 29Denbora pasa
30Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, Hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro___ beste kopuru bat___

**Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

Harmonia



Jabi Agirre (Lezamako Zorritzetan euskera alkartearen kidea)

“Animaliez baliatzen naiz pertsoneri irakasteko” (Jeane Fontaine)

Etxeko arratoi-txakurrak bere kumea-gaz jolasten dihardu, belar gainean jira-biraka, elkarri haginak erakutsiaz eta markatuaz baina minik egin barik, hasarre plantak besterik ez; ordu erdi ekin eta gero, kumeak “txau-txauka” jarraitzen du, baina amak oraingoan hortzak estuturik gaurkoz nahiko dela adierazten dio, eta biak elkarren ondoan etzun dira; ematen du egunero egiten dituztela antzeko olgetaldiak, klase praktikoak beste txakurrengandik defendatzeko, edota norbait etxera hurreratzeko denerako zein zaunka mota egin behar duen ikasteko.

Ardiak landan etzunda daude, zeren eguraldi beroak lurraren hezetasun bila bultzatzen ditu, eta horrela geldi, hobeto egiten diote aurre eguzkiaren beroari; ilundean, freskatzen duenean, zutitu eta arnas-estuka barik belarra jaten hasiko dira nahikotu arte.

Oiloak, oilarra tarteko dela, hara eta hona dabiltza, atzaparrakaz bazterrak arakatzuz, aztertuz, hurrengo egunetako arrautzak ekoizteko lehengai bila; eguzkia Artxandatik ezkutatzearaz batera, oiloak banan-banan otara igoten hasiko dira, leku segurura lukiak solte dabiltza eta, eta zutik loak hartuko ditu. Oiz menditik kukuka agertzen den eguzkiagaz batera egun berriari hasiera emana.

Hogei bat kardantxilo somatzen dira “txio-txioka”, kardulatz gainetatik saltoka eguneko afari-askaria egiten, eta lotara joan aurretik, entzuteko prest dagoenari kantaldi zoragarria doan eskaintzen.

Haizearen laztan freskoak gozotzen nau gorputz eta arima, eta zuhaitzen adar-orriak dantzan ari dira, ama-lurrak gaur eskaintzen digun kontziertoari erritmoa markatuz.

**“Gauaren isilaz
baliatuz oilotegian
lukiak sartu eta ote
“seguruan” lo goxoan
zeuden oiloak,
harrapatu eta eraman
dituzte”**

Baina gauean, loak oso-osorik hartu nauenean, amets gaiztoak ikaraz jarri nau: gauaren isilaz baliatuz oilotegian lukiak sartu eta ote “seguruan” lo goxoan zeuden oiloak, harrapatu eta eraman dituzte. Etxeko eta etxeko animalia guztiok jeiki gara lukiei aurre egiteko baina alferrik, ordurako eramanda egon dira. Etxean eta etxe inguruan tristura da nagusi. Hala ere, aske gelditu direnen arrautzakaz, oilo-lokeari ezarri eta hiru aste barru txitak jaioko dira.


Oharra: amets gaizto hori gauzatu egin da, eta lukiei dagokienez, ez dut uste beste piztiak baino okerragoak direnik.

Bainujantzia prest?




Eider Bilbao (Biologoa)

Ez dago esan beharrik, duela urte erdi inguru Galiziako kostaldean gure kostaldeko historian “orban beltza” utziko duen Prestige ontziaren hondoraketa gauzatu zela. Egindakoak eta egin bakoak kritikatu barik eta egoeraren zein eragin ekologikoen nondik norakoen errepasoa ematen hasi barik, hausnarketa txiki bat plazaratu nahiko nuke. Oso hareatza zalea ez banaiz ere, aspaldion hareatzak normaltasun osoz zabalduko direla bota du Eusko Jaurlaritzak. Denok ikusi/irakurri/entzun dugu orain arte bainua debekatuta egon dela, Espainiako gobernuaren arabera, ontziak egunero tona pare bat isurtzen darraiel eta ontziak oraindik milaka tona dauzkala barruan... Hala ere, Osasun Sailaren ustetan, uraren kalitatea ona da eta aurten ere hainbat hondartzatan bandera urdina ikusiko dugu. Hareatzetara, eta zer esanik ez haitz guneeetara, hurbiltzean ordea, egoera oso bestelakoa da: itxura garbia daukan harearen gainean toaila luzatzean, itsasertzetik pasiotxo bat ematean edo eta urpetan aritzean, orban beltzak nonahi itsasten zaizkizu. Bandera horiek “hondartzen kalitate onaren” adierazle dira, oraingoan ere?? Zenbaterainoko interesa dago hareatzak baldintza hauetan ere zabaltzeko?? Hareatzak zabaltzean, zer uste dute bat-batean desagertuko direla galipot orbanak ala?? Galizian ontzitik irteten jarraitzen duten orbanek zer, muga daukate Kantabrian eta bertan geratuko dira Euskal kostaldera hurbildu gabe ala? Eta garrantzitsuenak, ondorioak??


ZAMUDIO
 C/Barbado 2
 48940 Zamudio (Bizkaia) - 48100 Zamudio (Bizkaia)

LEANDRO LANBETA

IRABAGITZGIA-IRIBAITZGIA
 C/Barbado 2 • TEL. 94 402 80 10 - 402 70 04 10 10


Euzko Jaurlaritzaren
IRABAGITZGIA-IRIBAITZGIA
 C/Barbado 2 • TEL. 94 402 80 10 - 402 70 04 10 10

Zure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritxi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefona, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkeru, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Aurreko aldizkarian izandako akatsak direla eta gutun hau berriro ateratzen dugu zuzenketak egin eta gero.

Espainolak eta frantsesak

2003ko martxoan zen, zamudioztar taldeak Iparraldeko lurraldeak ezagutzera ibilaldia hasi zuen data. Baionara heldu bezain laster berehala ohartu ziren hiri hartako mintzaira nagusia frantsesa zeritzona zela. Nola izan zitekeen hori? Nola Euskal Herrian frantsesa? Egunak aurrera egin ahala eta Donibane Garaziko dendak ikusi ondoren Heletara heldu zen hegoaldekoen mar-txa. Bertan hartu zuten ostatu eta sabela ederto berdindu eta gero, amaigabeko kantak eta dantzak hasi ziren. Heletarrek abesti bat hasi eta zamudioztarrek amaitu. Ondoren, zamudioztarrek doinua eman orduko heletarrak abesten hasten ziren. Honela, goizaldeko ordu txikiak arte. Pozik zeuden zamudioztarrak Heletan sikiera euskeraz egiten entzuten zela eta.

Hurrengo goizean non aurkitu zuten autobusa pegatinaz beterik, "Heletan euskeraz" jartzen zuten pegatinok. Hau ikusita ere pozik zamudioztarrak Iparraldea ere kontzientzia nazionala hedatzen ari zela eta. Baten batek, gertatutakoa, aurreko gau hartan zamudioztar askok espainiera hutsean ibili izan zirelako ez ote zen galdetzen zuen.

Goiz hartan Zuberoako bihotzean dagoen Altzürüku herrira heldu zen Zamudioko espedizioa. Maskarada eguna zen eta liluratuta gelditu ziren manexak... zelako dantzak, nolako giroa, dena kolore, dena algarra...

Hilabete batzuk beranduago iparraldekoak izan ziren bidaiari, Zamudiora heldu zirenean berehala ohartu ziren bertoko mintzaira nagusia espainiera zela, nola izan zitekeen hori? Nola Euskal Herrian espainiera? Egunak aurrera egin ahala jakin zuten hegoaldekoek zein iparraldekoek elkar ulertzeko bide bat baino ez zegoela,

eta EUSKAL HERRIAN EUSKERAZ lelotzat hartu-tako milaka pegatina egin ostean, euskaldunek euren artean euskeraz berba egingo zutela era-baki zuten.

Gaur egun Euskal Herri euskaldun honek orduko zamudioztar, heletar eta altzürükutarrei asko zor die. Gora ba eurak!

Itzi Astorkiza

Larrabetzun bariante honi ez!!!

Ekainaren 10ean dozena bi lagun alkartu ginan Kultur Etxean, Larrabetzuko erreka eta lur asko suntsitzen dituan saihesbidearen inguruan kanpaina informatibo bat hasteko.

Proiektu horren aurka daukagun jarrera zen-bait puntutan oinarritzen da, besteak beste:

- a) Prozesu administratiboa modu irregularre-an tramitatu da. Udalak ez dau inongo informa-ziorik emon, eta planoak be, dena aprobatu artean, ez dira eskuragarri egon.
- b) Zertarako halako obra erraldoia eta tris-kantza ekologikoa egin, Santa Maria kalea oinez-

koen gune bihurtu danean eta trafikoa azaro nagusiak konpondu diranean?

c) Nola justifika daiteke horrelako azpiegitu-ra handia, 13 metroko zabalera, dagoen trafikoa kopuruagaz? Zergatik hasi gura dabe hain goiz, izan be, Bizkaiko Errepide Planaren arabera 8-10 urte gehiago itxaron beharko zan trafikoaren gorakadaren ondorioz errepide berria egiteko?

Larrabetzuko IgerOa! elkarte

Frantsesak
Lagariko Mexikak
Kandabak
Nikotina Frenk
Kafeta Zuluak
Urtur. 911.330.006

Bar TRIPPY
ZURE GORRIK OINERA
Bere kalitate erabazle...
Bilbo, 48002 Bilbo

Logo with geometric shapes and text, possibly an advertisement for a design or art studio.

TXEROLINA
LINTZAR
LINTZA
LINTZA

MARMOLCINZA
ALBERTO
Larrabetzuko...
94-434-02-90

J. ELORRIAGA
Larrabetzuko...
94-434-02-90

MARMOLCINZA
GOYO
SITIAKIN KANTAK
LINTZAR ETA HILERIKAK
94-434-02-90

Logo with a stylized figure and text, possibly an advertisement for a sports or fitness business.

Txorierriko eskolen arteko Udabarriko Jokoak

Maiatzaren 30ean, Udabarriko Jokoen XI. edizioa egin zan Zamudioko udal kiroldegian. Bertan, Txorierriko Haur eta Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoek hartu eben parte, hau da, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko eskolek. Gitxi gorabehera, 600 ikasle eta 60 irakasle batu ziran, eguraldi ezin hobek lagunduta.

Joko honeek eskolatik kanpo be euskaraz bizitzea dabe helburu nagusizat. Ganera, jolasen bidez umeen arteko harremanak sendotzea gura dabe ardura-dunek.

Pregoa irakurri ondoren, ikurrinaren igoa eta bertso saioak hasiera eman eutsien egitarauari goizeko 10etan. Gero,

prestatutako zirkuituetan hainbat jokotan aritu ziran ikasleak. Harmailetan txaloak eta adorea emoteko oihuak ziran nagusi. 12:30ak inguru, eskolen arteko mutilezko zein neskazko futbito txapelketak egin ziran. Bokaten ostean, lekuaren garbiketa eta materialaren bilketa egin eben danon artean.

Jokoak eskola guztietako Gorputz Hezkuntzako irakasleek antolatzen dabez. Marije Ispizua Zamudioko eskolako arduradunaren berbetan, oso metodologia ludikoa erabiltzen danez, ikasleek primeran pasatzen dabe. Halaber, eskolatik kanpo beste ekintza bat egiteko aukera dabe eta eskualdeko umetxoekin harremanetan jartzen dira.



Nazioarteko V. Xake Opena Derion

Ekainaren 1ean eta herriko Xake Taldeak antolatuta, "San Isidro" Nazioarteko V. Xake Opena izan zen Derion. Bertan, Mario Gomez jokalaria bizkaitarra nagusitu zen, 6,5 puntu lortuta. Bigarren postua Kantabriako Luis Javier Bernalek lortu zuen, 6 puntu irabazita.

Lehiaketa Bizkaiko 2003ko Xake Zirkuituaren barruan zegoen eta nazioarteko hainbat aditu bildu zituen, esate baterako, Carlos Varas jokalaria txiletarra.

Edizio honetan, Suitzako sistema erabili zuten lehiakideek, hau da, 25 minutuko partida erdiazkarrak jokatu zituzten zazpi txandatan. Haiek goizean zein arrastian egin ziren.

Hasieran aipatu den bezala, aurtengoa V. edizioa izan da eta aurrekoetan, besteak beste, Olaizola eta Roberto Cifuentes nagusitu ziren. Dagoeneko, Xake taldekideak 2004ko Opena dabilta prestatzen. Txorierriko xakezale guztiek klubeko atea irekita dutela azaldu digute. Haiekin harremanetan jarri nahi izanez gero, Derioko Gaztelekura joan edo www.go.to/dxt web orrialdean sar zaitezke.

Izartza ostalaritza-eskola inauguratuta

Urtebete eta erdiko berritze lanak amaitu ondoren, Izartza ostalaritza-eskola inauguratu zuten pasa den maiatzaren 17an Sondikan. Dagoeneko, kurtsuak hasi dira eta Txorierriko gazteek sukaldari laguntzaile eta barrarako edo jangelarako zerbitzari lanbideak ikas ditzakete bertan. Gainera, egiazko jatetxetat erabiliko da eta, klase teorikoak hartzeaz gain, hainbat profesionalekin batera egingo dute lan. Izartza ostalaritza-eskolaren proiektua Udalaren eta Peñascal fundazioaren artean lortutako akordio baten ondorioz burutu da. Beste alde batetik, Txorierriko Behargintzak ikasleak hartzeko ardura hartu du.

Zeruzena Jatetxea

Donostia, 10-11
 Telefonoa: 943 487 841
 Fax: 943 479 728
 www.zeruzena.com

BAR TXIKI
 Leizola, 11
 Telefonoa: 943 487 841

SAN ISIDRO

DOUPLES, BLANCA, UNICELAS

Telefonoa: 943 487 841

GAMINIZ
 RESTAURANTE


Telefonoa: 943 487 841
 Fax: 943 487 841
 www.gaminiz.com

Mila su Txorierrin San Joan bezperan

Urtero lez, hainbat su piztuko dira Txorierriko herri guztietan ekainaren 23an, San Joan bezperan hain zuzen ere.

Horrela, Derion, Lainomendi taldearen eskutik kalejira izango da herritik arratsaldeko zazpietatik aurrera. Ondoren, erromeria eta korroko dantzak San Miguel Plazan. Bertan, Ipar-Alde abesbatzak kontzertua eskainiko du ere. Ostean, herriko elkarte batzuek txixiburduntzia prestatuko dute bertararutako herritarrentzat. Iluntzean, sua piztuko da plazaren inguruko sorroan.

Zamudioko Gazte Asanbladak ere hainbat gauza antolatu ditu egun horretarako. Arratsaldeko 6etan, herriko ume guztiakin batera, plazan bilduko dira kartoiak eta sugarriak batzeko asmoz. 21:00etan txixiburduntzia prestatu eta 22:00etan sua piztuko dute betiko zelaian. Horrezaz gain, suzko malabareak eta paro-



dia-antzerkia ere egitea pentsatuta dute. Beraz, herritar guztiei San Joan jaian parte hartzeko eskatzen diete.

Era berean, Udalak eta Zorritzketanek antolatuta, Lezamako lagunek ere jai izango dute frontoiaren atzean. Han taillerak eta puzgarriak ez ezik afari-merienda ere egingo dute. Beste alde batetik, 22:00ak aldera, suaren inguruan antzerki herrikoia izango dute larrabetzuarrek, Hori Bai gaztetxearen eskutik.

Euskal astearen ostean Lagatzu eguna

Ekain bete-betea izan dabe zamudioztarrek. Hilea Lagatzuren asteagaz hasi zan, eta, antolatzailerek esan deuskuenez, pozik lotu dira izandako erantzun eta parte-hartzeagaz. Hurrengo asteburu bietan, lehenengo herriko Pazko jaiak eta Santomasak gero. Hilabetea jai giroan amaitzeko, taldea sortu zanetik, urtero egiten daberen moduan Lagatzu eguna antolatu dabe ekainaren 22rako, domekaz. Egun honek, ikasturtearen bukaera iragarriten dau. Eguerdi partean kantak, bertsoak, txistu, trikiti eta fanfarrearen doinuak herri guztira zabaltzen diren arren, zezer azpimarratzekotan plazan egiten dan herri bazkaria eta bazkalondoko giro ezin hobea.

Derio-Zamudio lasterketak hamar urte bete dauz

200 korrikalari inguruk parte hartu eben ekainaren 1ean Derion hasi eta Zamudion amaitzen dan herri lasterketan. Emoten dau bere lekutxo egin dauela herri lasterketen kalendarioan Txorierriko honek. Aurtengoa hamargarrena izan da eta aldaketa txiki batzuk izan ditu ibilbideak. Txikienez 5,4 km eta nagusiek 8,8 km bete behar izan ebezan. Azken urteotan egin izan daberen moduan, izen-emotean batutako dirua "Mugarik gabe" GK Erentzat izan da.

Lezamatik Elantxobera

Madalenetako ospakizuna dela eta, Elantxobera joateko autobusa antolatu du Lezamako Udalak. Horrela bada, herriko plaza- zatik goizeko 8:30etan irtengo da datorren uztailaren 22an. Prezioari dagokionez, 4.50 euro ordaindu beharko dute 25 urtera arteko lagunek eta 5.50 euro 26tik gorakoek. Halaber, herrian erroldatu gabeek 6.50 euro ordaindu beharko dute. Irteera egin ahal izateko, beharrezkoa da gutxienez 30 pertsonak izena ematea. Ildo honetan, 54 lagunentzako tokia egongo dela aipatu behar da. Uztailaren 1etik 4ra arte eman behar da izena liburutegian, goizez. Apuntatu ahala gordeko dira plaza- z. Irteera bertan behera utzi edo arazo larririk ez bada, ez da dirurik itzuliko.

KZgune berria Sondikan

Sondikako KZgunea irekita dago maiatzaren 21etik liburutegian. Bertan, herriko lagunek interneten nabigatu zein euren beharrei egokitutako interneteko ikastaroa egin dezakete. Gainera, dohainik eta ordutegi zeharo malguan, 9:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 20:00ak arte, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, gai espezifikoei buruzko hainbat ikastaro praktikoko ere egin ahal izango dituzte: sukaldaritza, komunikabideak, lana, banka on-line... Halaber, IT txartela nabigatzaile ziurtagiria lortzeko aukera izango dute.

Kukubiltxo mamutxen bila

Larrabetzuko antzerki taldeak "Mamutxak" izeneko lan berria aurkeztu zuen SGAE-ren Bilboko aretoan maiatzaren 29an.

Josu Camara konpainiaren zuzendariak azaldu digun lez, "gaur egungo gizarte modernoan galdutzat ematen genituen pertsonaia mitologikoak dira mamutxak, Basajauna, Tartalo eta Gaueko, esate baterako". Hori dela eta, Mamutxak SA enpresako zazpi zientzialarien zerbitzuak kontratatu dituzte. Horiek, ordu bete eta laurden inguruko jarduera bakar batean, Euskal Herriko biztanleriaren artean ezkutaturik bizi diren mamutxak aurkitzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako, punta-puntako teknologiaz eta tresna sofistikatuz hornitutako unita-

te mugikorra erabiliko dute. Halaber, herritarren partehartzea ezinbestekoa izango dute. Bixente Martinezek eta Pablo Lasak konposatutako musika ere nagusi izango da kalejirari zehar.



Ankapalu sagardotegia, goxotasuna eta kalitatea barritzen

"Ilusioz eta gogotsu gabiltza, nahiz eta jakin badakigun inurrien lana egin behar dala arlo honetan norberaren lekua irabazteko". Horreek izan dira, hasierako agurrak eta gero, Ankapalu Sagardotegiaren jabe barrien lehen berbak, eta ez da gitxiagorako izango aurrez-aurre dagoan erronka ikusita. 1990ean Larrabetzuko Loroño auzoan zabaldutako erretegiak aro barriari ekingo deutso eta, Txaro eta Robertoren esanetan, "bezeroei goxotasuna eta sasoian sasoiko kalitatezko produktuak eskaintzea izango dogu helburu".

Aterpeko jatetxetik aparte, Sagardotegiak kanpo aldean jatorduak egiteko aukera be emoten dau. Ingurua haretex josita dago eta eguraldia lagun danean, gerizpetan dagozan harrizko mahaietatik Txorierrri guztia begibistan geratzen da, Gaztelumendiko mendi hegaleko bazter honeri xarma berezia emonez.

Handikerietan eta gauza ederrak esaten jarraitu geinke, baina ugazaben eritxiz "berbak haizeak daroaz, hobe dogu gure

bisitariak dastatu eta bizitakoaren barri emoten badabe ahoz aho". Beraz, badakizu: makailo tortilla, arrain freskua eta txuleta erreari emon aukera, ondo busti bertoko ardo, sagardo edo txakolinaz, eta egia zabaldu. Erdu, eskertuko dozu.



Testua eta argazkia: Arrekilii euskara elkarte

Nerea Pellaniz, Valladolideko "Gure txoko" euskal etxearen presidentea:

"Oso zaila da euskaldun izatea Euskal Herrikan kanpo"

Joan den maiatzaren 17an Derioko Ipar-Alde abesbatzak kontzertua eskaini zuen Valladoliden. Ekitaldi honek "Gure txoko" euskal etxeak antolatutako Euskal Asteari amaiera eman zion. Primeran pasatzeaz gain, Nerea Pellaniz euskal etxearen presidentearekin hitz egiteko aukera izan zuten. Aikorerako ondorengo elkarrizketaxo hau egin zuten.

Noiz eta zergatik sortu zenuten euskal etxea?

1983. urtean. Hemen bizitza nahiko gogorra suertatzen zitzaigunez batu ginen Gipuzkoa eta Bizkaiko jendea. Gurea izango zen elkartzeko tokia izateko nahian "Gure txoko" sortu genuen.

Zenbat bazkide zarete?

50 familia, baina 150 pertsona inguru izango gara guztira.

Zein motatako ekintzak antolatzen dituzue urtean zehar?

Hemengo beste eskualde-etxe batzuekin harremanetan gaude eta makina bat ekitaldi egiten ditugu denok batera. Gainera, abesbatza eta areto-futbol taldea dauzkagu eta euskara zein euskal dantza ikastaroak ematen dira gurean.

Beste alde batetik, bazkariak egiten ditugu askotan eta bidaiaren bat ere antolatzen dugu noizean behin; bai Euskal Herrira, bai beste eskualde batzuetara.

Zelan hartzen zaituzte hemen?

Lan handia egin behar dugu, Euskal Herrikan kanpo euskalduna izatea oso zaila da eta. Bat baino gehiagok jakingo duenez, Valladolidekoak nahiko uzkur dira gu hartzeko... Denboraren poderioz batzuek ezagutu gaituzte eta iritiz aldatu dute.



ZAMUTINDIKO ESTANIKUA

Tafelokak, ilaberrak eta oporrikak

Tafelokak, ilaberrak eta oporrikak
Tafelokak, ilaberrak eta oporrikak

ATARRIKAK

ATARRIKAK

ATARRIKAK

BIDE-GORRI

BIDE-GORRI

BIDE-GORRI

“Berria” egunkariaren aldeko jaialdia Derion.

Maiatzaren 31n egin zen Berria egunkariaren aldeko jaialdi arrakastatsua Derioko kiroldegiaurreko plazan. Lan bikaina egin zuten antolatzailleek, hau da, Tximintx euskara elkarteak eta AEK-ko lagunek, Txorierriko gainerako euskara elkar-teen eta Derioko Udalaren laguntzarekin.

Honela, bada, jaialdia girotzeko arratsaldean egunkariaren proiektu berria aurkezteaz gain, kirol ekitaldiak izan ziren kiroldegian. Giro ederra berotzeko, San Isidro elizatik hasita kalejira ikusgarria eskaini ziguten Lezamako Kurutze, Zamudioko Hiru-Bat eta Derioko Lainomendi dantza taldeek. Horren ostean, Udane Goikoetxea kazetari trebearen euskara ederrean aurkeztuta, aipatu-

tako taldeok alarde bikaina eskaini ziguten bertaratu gineno, eta dantzen artean Xabier Oleaga omentzeko, lore sorta eman zioten haren aitari.

Giroa bero-bero zegoen eta, antolatzailleek eskatu ez bazuten ere, euri zaparrada batekin jaso genuen zerua-ren laguntza, osterantzean gaueko kontzertuaren jendetzak eta Sei Urte, Gatibu eta Urgabe taldeen gogoak, alaitasunak eta musika indartsuak kiskali egingo gintuen.

Jaialdiaren ondoko egunetan AIKOR! aldizkariak jakin izan duenez, diru bilketa ederra egin zen egunkari berriarentzat. Zorionak, beraz, parte hartu zenutenoi eta, bereziki, antolatzailleei.

Lezamako eskolako jai

Ekainaren 14a, zapatua. Goizeko hamarretan bolanderak entzuten dira Lezaman. Ordu honetan Lezamako eskolako ikasturte amaierako jai hasten dela ez dakienarentzat lehenengo abisua; egunean zehar gehiago egongo dira eta.

Eskolara heldu eta giro zoragarria: irakasle, ikasle, neba-arreba eta gurasoez beteta. Denak eskolako kamiseta horia jantzita eta bertan “Gero eta gorago” idatzita. Benetan bai benetan gero eta gorago doala gure herriko eskola hau. Ikusi baino ez dago ikasturtean zehar, “euskaraz bizi” kanpainaren barruan, euskara bultzatzeko egindako lan eskergari, gaur, Guraso Elkarteak antolatua, prestatu duten jai arrakastatsu hau. Hurbildu den edonorentzat ez da aspertzeko astirik egon: lehenengo gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak, globo tailerra, rokodromoa, tirolina eta arku tiratzea; geroago, 6.mailako ikasleei agurra eta opari banaketa; jarraian, euskara bultzatzeko ikasleek idatzitako mezuekin 700 globo aireratu dira; bitartean Zorriketanek Berria egunkariaren akzioak eskuragai mahaitxo batean; eguerdian denontzako bazkaria; eta arratsaldean antzerkia Detraka taldearen eskutik. Jai horia, jende jatorrez josia! Eskola honek badu etorkizunik, baita Lezamak ere. Eta gure euskara erasanak ere gero eta gorago egingo du.

Lezamako batzoki berria

Inaugurazio ekitaldi ofiziala ekainaren 28an izango bada ere, maiatzaren 17an ireki zuten Garaioltza kalean Lezamako batzoki berria. Bertara jendetza handia batu zen. Haien artean EAJko Iñigo Urkullu aipatu beharra dago. Protokoloa bete ondoren, lunch-a eskaini zitzaion herriko jendeari, eta Zamudioko Bertoko trikitilari-ek alaitu zuten giroa.

Lokal berria taberna-jatetxetzat erabili-ko da, baina tokia ere izango da alderdi-aren barruko jardunerako.



OLANDO S.L.
AROTEGIA

- Guztako altxariak, neurria eginak
- Dalmugelako altxariak, neurria eginak
- Izama-arrainak
- Mehalak eta buldak
- Toki-ostalariko altxariak

Udako inaugurazioa
11.00etatik, 18.00etara
944221000 (Derio) | Tel. fax: 94 432 1010

ZAMUDIO MOTOR

94 432 1010
94 432 1048

Pl. Berdegall
Pl. 4, Zamudio
ap. 100001
48920

GARRAIO LARIA

Miguri Angri Ikar

ANDRA MARL 10
1. BARRAIZTELLI
Tfn: 94 432 00 20

**ERREDE
ERAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEK
JAUNARTZEAK**

Arteaia auzoa, 119
Tfn: 94 432 11 58
ZAMUDIO



“Egunkariaren itxierak sortu duen haserrea egunkari berriaren bultzatzaile bihurtu behar dugu”

Joan den otsailean euskarazko egunkari bakarra itxi zigun euskaldunoi Madrilgo Gobernuak. Gainera, Martxelo Otamendi Egunkariko zuzendaria eta beste bederatziki kide atxilotu zituzten. Kartzelatik atera zene-tik, tolosarrak Egunkariaren itxiera eta pairatutako torturak salatu egin ditu hainbat alditan. Pasa den astean Berria egunkariko zuzendari izendatu zuten. Ekainaren 2an, Zamudioko Lagatzu Euskara Elkarteak antolatuta-ko mahainguruan hartu zuen parte Erramun Osarekin.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Itxaso Marina, Lagatzu

Lehenago eta behin, esaguzu zelan zauden.

Ondo nago, animatuta... eta oso eskertuta jendearekin, laguntza handia eman digulako. Izan ere, Euskal Herritik ez ezik kanpo-tik ere eta sektore guztietatik atxikimendua ailegatu zaigu, era batean edo bestean.

Duela gutxi, Berria egunkariko zuzendari izendatu zituzte. Lan egiteko gogoarrek?

Bai, egunkari baten zuzendaria izatea izugarri gustuko dut.

Torturak salatu ondoren, epaitegian ikusiko zenutela elkar esan zuen Espainiako Barne Ministroak, zer esan behar duzu horren inguruan?

Sistema horrela dago antolatuta. Alde batetik, torturazten zaituzte estatuak onartuta, tortura probetxugarria delako beraiantzat. Gero, beste aldetik, estatuak berak salatzen zaitu hamar urtetako kartzela-zigorren mehatxupean. Oso haserre nago torturatu egin bainaute eta ez dut etsiko nire torturaztaileek zein torturen arduradunek epaiketa serio bat izan arte. Torturaren aurkako borrokan nire sinesgarritasuna jartzeko prest nagoela esan dut

behin baino gehiagotan, baina horretarako jendearen laguntza behar izango dut.

“12 urtetan zehar Egunkaria kioskoetan eta harpidedunen postontzietan izan da, baita itxi ondoren ere”

Euskaldunon Egunkaria itxi bazuten ere, hurrengo egunean Eguneroko zegoen kalean, espero zenuen?

Bai. Gure programa informatiko onena gure jendea dela pentsatu dut beti, eta gure programa informatikoa primeran ibili zen Egunkaria itxi eta gero. Nahiz eta zuzendaria, presidentea, idazkaria... atxilotuta egon, hurrengo egunean egunkaria kaleratzeko gaitasuna izan zuten langileek. Beraz, 12 urtetan zehar Egunkaria kioskoetan eta harpidedunen postontzietan izan da, baita itxi ondoren ere.

Anekdotak moduan ondorengo kontakutako dizuet: epaileak zer zen Eguneroko galdetu zidan eta nik, apaltasun osoz, Tolosa aldean zegoen bailara egunkaria zela erantzun nion... Aurpegieragatik ez zidala sinistu kon-

turatu nintzen. Berak bazekien gure langileek kaleratu egin zutela, baina nik ez... Oso jende fina, langilea eta saiatua da gurea, bai.

Eta jendearen erantzuna itzela, ezta?

Zalantzarik gabe. Donostiako manifestazioa, lan uzteak... mila erataria jaso dugu atxikimendua. Nire ustez, Egunkariaren itxierak sortu duen haserrea egunkari berriaren laguntzaile eta bultzatzaile bihurtu behar dugu. Langileak horretan dabilta eta ni ere bai.

Izan ere, euskaldunok euskarazko egunkaria behar genuen eta behar horretan jarraitzen dugu...

Egunero trantsizio-egunkaria da eta meritu handia dauka baliabide gutxiek kaleratzen baita. Hori dela eta, hainbat gai, gerra edo hauteskundeak esate baterako, ez dira behar bezala jorratu. Horrexegatik, ahalik eta azkarren merezi duten egunkaria jarri behar zaie euskaldunei eskuetan. Hori izango da gure proiektu berria.

Aurreratu ahal diguzu proiektu berri horren gauzaren bat?

Ekainaren 21ean kalean egoteko asmoa daukagu. Mantxetari, diseinuari eta atalen ordenari dagokienez, aldaketa batzuk egingo dira. Lehen hasten zen



Eramun Osak eta Martxelok euskal zaletasunaren egoerari buruz hitz egin ziguten Lagatzuk antolatutako mahain-guruan. Juan Luis Goikoetxea moderatzailea izan zen.

iritziekin, baina hemendik aurrera "Gaurko gaia" izeneko atalarekin egingo da. Beste alde batetik, Interneteko foroek ere lekua izango dute paperean... Halaber, agenda eta kazetaritza propioa landu nahi dira.

Zein egoeratan daude langileak?

Langabezian. Euskaldunon Egunkariaren lehenengo enpresa utzi eta EKT (Euskarazko Komunikazio Taldea) enpresa berria jarri dute abian, 30.000 euroko inbertsioa eginda. Orain akzioak erosteko deialdiarekin dabilta.

Egunkaria itxi zezaketeen susmorik bazenuen?

Azken urte hauetan jomuga asko egon badira ere, nik ez nuen inoiz pentsatu 2003ko otsailean gure bila etorriko zirenik. Dena dela, susmoren bat baneukan bezperan... Azpeitian hitzaldia eman behar nuen eta bukatu ondoren, antolazaila batek esan zidan "Aizu Martxelo, txapela eta alkandoraren lepoa altxatuta bi gazte daude... Nik ez ditut ezagutzen..."- Etxerako bidean auto bat aurrean eta beste bat atzean jarri zitzaizkidan eta lehenengoak aparkatzen dudana lekuraino jarraitu zuen... - "Beno, niri segika izan ditut bi auto"- pentsatu nuen, baina ez nion garrantzirik eman, izatez, ez nion inori deitu. Hurrengo egunean, lo nengola kolpe batez jo zuten atea - "Abra, Guardia Civil".

Zer pasatzen zaizu burutik momentu horretan?

Egunkaria itxiko zutela pentsatu nuen... Gero, jasoko nuen tratua zen nire kezka. Izan ere, Guardia Zibilek halako operazio bat gure herrian egi-ten dutenean tratatu txarrak jasotzeko

arriku handia dago... Dena dela, nik ez nuen inoiz imajinatu torturatuko nindutenik.

"Euskara eta euskal zaletasuna... jomugan" izeneko mahainguruan parte hartu duzu oraintxe bertan, zure ustez, zer espero dezakegu hemendik aurrera?

Egunkariaren itxierarekin mezu bat bidali nahi izan digute Madriletik -"Aizue, autogobernua, autodeterminazioa edota zuen etorkizuna erabakitzeke eskubidea duzuela aldarrikatzen jarraitzen baduzue, hau da izango duzuen. Egunkari bat itxiko dugu, staffeko hamar kide atxilotuko ditugu, tratatu txarrak emango dizkiegu eta, gainera, batzuk torturatuko ditugu... Zein den zuen etorkizuna argi gera dadila"-.

Turko-buruzat erabili gaituzte, gurea ez baitzen egunkari kezagarria Madrilentzat. 15.000 ale kaleratzen genituen eta gure eragina, sektore batzuetan eta gai batzuekin, kuantitatiboa baino gehiago kualitatiboa zelakoan nago...

"Madriletik etortzen diren erasoak gelditzeko gaitasuna baduela erakutsi behar du herri honek"

"Egungo egoera ikusita, legea betetzea buru-hiltze politikoa izango litzatekeelakoan nago"

Zure ustez, nola egin behar zaio aurre egoera honi?

Sendotasunez. Madriletik etortzen diren erasoak gelditzeko gaitasuna baduela erakutsi behar du herri honek. Legea bete behar dela esango lukete batzuek, baina Jose Elorrietak adierazi zuen bezala, hori buru-hiltze politikoa izango litzateke. Erantzuteko ez ezik zerranda horretan egon daitezkeen hurrengo kalte- tuak babesteko modu bat ere aurkitu behar dugu. Orain dela gutxi izan da EITB, hurrengoak ikastolak edota zuek, herri aldizkariak, izan zitezke- te... Haiiek badakite ez garela ETKoak, ez garela egunkari kezka- rria... Horrexegatik, euskaltzale, aber- tzale eta demokrata guztiak minimo batzuen inguruan biltzea beharrezkoa da. Legeak eta epaileen autoek zure herria suntsitu nahi dutela jakinda, legea betetzea baino ez bazaigu gelditzen..., akabo.



Akzio bideak dira bilaketa

5.000.000 €

behar ditugu

Ekuratu zure akzioak

1 | 300 euroko akzioak

10000 akzioak 10000000 €-rekin

1 | 50 euroko akzioak

10000 akzioak 500000 €-rekin

Bilaketa zure akzioak

10000 akzioak 10000000 €-rekin

Anne Skytta, Finlandiako ingeles irakaslea:

"Berba oso altu egiten duzue"



Anne Skytta du izena, 27 urte, ile horia, altua, Iparraldetik etorritakoa, Finlandiatik. Lehen galdera derrigorrezkoa da. Zer egiten duzu Txorierrin?

"Elkartruke baten bidez, ingelesa irakasten dut bai Derioko eskolan, bai Txorierriko institutuan. Sei hilabeterako etorri naiz. Uzailean amaitzen zait eta itzuli beharko naiz. Une honetan Lezaman bizi naiz, institutuko guraso batzuen etxean"

Elkarrizketa gaztelaniaz da, ulertzeko adina ikasi du eta nahiko ondo moldatzen da. Ondoan, badaezpada laguntza beharko balu, Iñaki, eskolako ingeles irakaslea. Annek euskarazko hitz batzuk besterik ez ditu menperatzen.

"Helsinkiakoa naiz, Finlandiako hegoaldean dago, han egunak sei ordukoak dira neguan, baina iparraldean egun asko pasatzen dute eguzkia ikusi barik, eta udan, ostera, ia ez du iluntzen eta egun osoan dago eguzkia."

Kontatzen digunez, "Eskolako ume txikiek ez didate askorik ulertzen eta kosta egiten zait, nagusiagoekin hobeto moldatzen naiz, ingeles maila nahiko altua dutenez errazago da komunikatzea".

"Ume nagusiagoekin txikitxuekin baino hobeto moldatzen naiz"

Galdetu behar genion eta galdetu diogu, konpara ditzala bere jatorrizko herria eta gurea, zelan ikusten gaituzu? *"Paisaia ezberdina da, hau menditsua da; Finlandia, ostera, oso laua. Etxeak ere ezberdinak dira, etxe barruan han askoz ere beroago egoten da, 25 gradu inguru. Hemen neguan hotz apur bat pasatu dut"*.

Eta umeak? *"Gehien harritu nauena umeek berba oso altu egiten dutela eta oso mugituak direla, nire herrian askoz ere lasaigoak dira eta baxuago egiten dute berba"*

Janariaren konparaketa ezin da falta. *"Patata tortila eta piper frijituak jaten ondo ikasi dut. Hemen gehiena frijituta jaten duzue, han gehiago barazkiak, entsaladak"*

Eta eskolak? *"Asignaturak ezberdinak dira. Han, adibidez, ume guztiak ikasten dute arotz lana, josten...". "Musika ere gehiago lantzen da, denek dakite soinu tresnaren bat jotzen, txikitatik". "Umeei asko gustatzen zaie igeri egitea bertako lakuetan, bai udan eta bai neguan. Neguan gainera izotz kapa kendu eta gero."*

Joan baino lehen, eskolan Finlandiari buruzko aste bat antolatuko dute. (Artikulu hau irten orduko eginda egongo da). *"Umeek Finlandiari buruz egindako muralak ipiniko ditugu erakusgai. Hango umeen jolasak"*

"Eguzkia izango zela hemen nagusi uste nuen"

"Patata tortila eta piper frijituak jaten ondo ikasi dut"

"Finlandian, ume guztiak ikasten dute musika, josten, arotz lana..."

"Hemen harremanak beroagoak dira"

erakutsiko dizkiet hemengo umeei. Finlandiako abesti tradizional batzuk kantatuko ditugu, finlandieraz kantatu ere". Dantza ikastaroa ere izango da, eta zein dantza? Yenka. Zeren Annek dioskunez, Yenka dantza famatua Finlandian sortua da.

"Saiatuko naiz plater tipiko batzuk prestatzen: patata entsaladak, albondigak, pasteltxo antzeko batzuk, han edozein amak egiten dakienak. Ni ez naiz ama baina galdetu egingo dut. Plater horiek hemen egitea ez da erraza izango, zeren osagai asko ezin baitu aurkitu, baina moldatuko naiz."

Gutaz harritu duena ere gidatzen dugun era da. "Han askoz ere lasaigo gidatzen da". Egin duen euria ere ez zuen espero, eguzkia izango zela hemen nagusi uste baitzuen eta "negu honetan bota duen euria".

Dena den, orokorrean uste zuen ezberdintasun handiagoak aurkituko zituela, baina ez dira hainbesterainokoak. Hori bai "Nik esango nuke Finlandian hotzagoak garela, hemen harremanak beroagoak dira, eta umeek esan dudana bezala berba oso altu egiten duzue"

Testua eta argazkia: Jose Angel Mentxaka

Sander * Derioko hip hop zalea

“Zergatik ezin dugu kalea museo bihurtu?”

Gazte-gazterik sartu zen hip hop munduan, sentimenduak adierazteko biderik zuzenena zela koan. Hip hop-a New Yorkeko beltzen auzoetan jaio zen 60ko hamarkadan, eta kaleko kulturaren hainbat adierazpide biltzen ditu: graffitia, break-dance-a, DJ-ak eta errima bihurtutako salaketa. 25 urteko gazte honek, bere taldekideek lagunduta, lanean jardundu, korrante honek Derion ere lekua izan dezan.



Zer adierazi nahi duzu graffiti bat egiten duzun bakoitzean?

Batez ere, D-160 taldea hor dagoela. Graffitia aldarrikapenak egiteko tresna baliagarria bada ere, ez dauka zertan horrexetara mugatu. Batzuek errebindikazioak egiteko margotzen dute; beste batzuei, berriz, euren sinadura leku guztietan ikustea gustatzen zaie... Sistemari kritika egiteaz gain, jendeak hor egon zarela jakitea da helburua.

Gerta liteke baten bati ez gustatzea...

Bai, guk denetarik entzun behar izan dugu. Baina saiatzen gara inori kalterik ez egiten. Izan ere, nik ere txarto derizot furgonetetan edo garraio publikoetan margotzen bada.

Orduan, non egiten dituzue?

Derioko zubian margotzeko baimena eman digute, baina dagoeneko ez dago lekurik... Beste orma batzuk eskatu dizkiogu Udalari, eta ezetz esan digu. Orduan, ilegal moduan ibili behar dugu.

Baina hori da, hain zuzen ere, graffitiaren oinarria, nahiz eta gaur egun graffiti-egile askok enkarguzko lanak egin.

Puristenek graffitiak ilegala izan behar duela esaten dute, baina nik ez daukat arazorik horrekin. Gustatuko litzaidake enkar-

guren bat egitea. Nire lagun batek komertzio batzuentzako lanak egin ditu Derion.

Margotzera ateratzen zaretenean, nola antolatzen duzue ekintza?

Gauetz irteten gara eta nik arropa beltza eramaten dut. Sprayak plastikozko poltsa batean sartuta ertzainak edozein momentutan ager daitezke eta. Halakoetan, material guztia bota eta haiek baino azkarragoa izateko beste erremediorik ez duzu. Horrexegatik, askok nahia go izaten dute sinadura errotuladoren egin. Hari “bonbardatu” esaten zaio.

Inoiz alde behar izan duzue karraka?

Behin baino ez, eta nahia go nuke berriro ez balitz gertatuko... Graffitia egiten edo errotuladoren sinatzen harrapatzen bazaituzte, 300 euroko isuna jartzen dizute.

Ulertzen duzue jarrera hori?

Ez, ez diogu inori kalterik egiten. Hau kaleko artea da... Orma bat gris eta zikin badago, guk kolorez betetzen dugu. Gainera, museo askotan graffitiak izaten dira... Zergatik ezin dugu kalea museo bihurtu?

Erabiltzen duzuen materiala garestia da, ezta?

Spray bakoitzak 4.05 euro balio du dendan. Guk fabrikatik zuzenean ekartzen

dituen jendeari erosten dizkiogu 2.7 eurotan. Zenbat eta graffiti ikusgarriagoa egin gura izan, diru gehiago gastatu beharko duzu.

D-160 taldea sortu duzue, zelako ekintzak antolatzen dituzue herrian?

Joan den hiru urte honetan, herriko jaietan eta Gabonetan hartzen dugu parte, hip hop-aren inguruko hainbat gauza antolatzen. Lehenengo urtean jaialdia egin genuen eta break-dance, DJ eta hip hop-en erakustaldiak izan ziren. Gauean, kontzertuak egin ziren... Ondo egon zen, baina batzuek ormetan margotu zuten... Orain ez digute uzten ez kontzerturik antolatzen ez graffitirik egiten. Aurten, jaietan break-dance lehiaketa egiteko asmoa genuen, baina erakustaldia egin behar izan dugu, Udalak ez digulako behar beste dirurik eman.

Gabonetan, El niño de las pinturas ize-neko graffiti-egile granadarra ekarri nahiko genuke erakustaldia egitera. Horretarako, Udalak ormaren bat utzi beharko liguke... Eskatuko diogu, ea zer gertatzen den...

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Buztinezko ametsak

Derioko Aldekone auzoan bada buztin eta lurrezko masean eskuak sartuta eukitea gogoko dauen talde bat. Martitzen eta eguenetan, arratsaldeko zazpietatik bederatzietara, koinatak agindutako jarrotxua, egongelako telebista aurreko edota armairuko izkutuko azken apalean libre dagoan bazter hori, edo ezer barik daukagun kajoia betetzeko, irudimenean jatorria daukien buztinezko pitxar, hautsontzi, lorontziak... egiten dihardue. Derioko zeramika tailerrea 14 lagun dabilz lanean, Bego Larrabeiti derioztarraren ardurapean.

80ko hamarkadaren bigarren erdian jaio zan zeramika tailerra deioztar batzuen ekimenez. Modesto eta Txomin hasikeran, eta Elisa eta Iñaki geroago, ibili ziran taldea eroaten. Taldea alkarte bilakatu zan, Etxegintza alkarte, eta geroztik egoitza egonkor bat euki dau mataderoa egoan lekuan. Dirulaguntzak be izan dauz Udalaren aldetik.

Begok dinoanez, laguntza franko jaso dabez: mataderoako lonjea, berau barriztazeko lanak, labeak, tornuak, lehengaiak.

Arte Ederretan lizentziatua dan honek taldearen ardura daroa 1999 urtetik hona, urtik ekainera bitarteko ikastaroak antolatzen.

Begoren esanetan, edozeinek emon daike ikastaro honeetan parte hartzeko izena, Deriokoa izan zein ez. Hamabi ikasleko taldea da bere iritiz egokiena, aurtongo 14koa gehiegizkoa dalakoan. Herrikoek bi kuoten ordainketari egin behar deusie aurre, hasikeran 54 euro eta erdialdera beste horrenbeste.



Zeramika tailerreko lagunak buru-belarri dabilz lanean.

May 2011 2011 Jun 2011

Magalarte Txakolina

75 cl.

Botela Tola 10,7% vol.

TOLDOS ZANUDIO S.L.

- Toldosak talde eta dibeltara
- Toldosak kargando eta ipintze
- Ezkizil toldosak markezta lanak

Eskatu aurkeztu hurrengo berri

Pol. Torralarragoiti P-6 A-1
48170 Zornuzte (Bizkaia)
Tele. 94 452 35 85

Mead Embalaje S.A.

San Martin, 26
48170 Zornuzte - Vizcaya

☎ 94 - 94 452 38 48
94 - 94 452 35 16

Telefax: 94 - 94 452 30 68
94 - 94 452 30 22

e-mail: tx@mead.com

Kanpokoentzat apur bat gehitxoago, 66 euroko ordainketa bi. Ordaindu beharreko kuota horreetan erabiltzen dan lehengaiaren kostua be sartuta dago, salbuespenak salbuespen.

Ikastaro honeetan parte hartzeko ez da esperientziarik behar. Hasteko, teknika erraz batzuk ikasten dira, txurroak, plakak, moldeak. Eta gero, tornua. Hau izaten da, Begoren ustez, ikasleei gehien kostatzen jaken teknika, eskatzen dauen trebezia lortzeko pazientzia eskerga behar baita. Tailerrean tornu bi dagoz, baina ez ei dira erabilerrazak. Setatia, burugogorra behar dau izan ikasleak, haize hartzera bialtzeko tentazinoa handia izaten baita. Dana dala, behin trukua hartuz gero, lana errazago egiten da eta emondako fruituak zapore hobia eukiten dau.

“Modelatze-lanetan txamotaduna edo erregogorra erabiltzea komenigarria izaten da”

Erabilitako lehengaiak desberdinak izaten dira, buztin gorria, baltza, zuria, txamotagaz, erregogorra. Begok dinoanez, gorriak edozertarako balio dau, baina modelatze-lanetan txamotaduna (kristal txikiak dituena) edo erregogorra erabiltzea komenigarria izaten da, gitxiago uzkuertzen dan ez dalako gorri arrunta bezain apurkorra eta, ondorioz, lantzeko orduan lasaitasun gehiago emoten dau.

Baina, bueno, azalpenak azalpen artikulua hau aurrera doa eta oraindik ez dogu esan zelan egiten dan zeramikazko ontzi bat, zertan datzan, esaterako, lorontzi eder bat egiteko prozesua. Hau dozue Bego Larrabeitiren erantzunaren laburpena.

Lorontzia egiteko buztin gorria erabiliko dogu, arruntena eta merkeena dalako. Buztina ondo amasatu eta gero tornura goaz. Tornuan buztina hobeto lantzeko eskuak edo buztin bera be bustiko doguz. Gero gura dan forma emon eta labean sartu 990° C-tan. Egosketa zortzi ordukoa izan behar da. Gero margotzea dator. Esmaltea emonez egiten bada, barriro egosi behar da temperatura bardinean gitxi gorabehera, eta emgabe-a emonez egiten bada, birritan egosi behar da esandako temperaturan. Azken ikutua emoteko, disdiratsuagoa itxiteko, barriro egosiko da, oraingoan temperatura apalagoan.




Lorontzi ederrak egiten dituzte tailerrean.

Eta hara, hor daukagu lorontzia, lorkaz, uragaz edo norberak gura dauenagaz betetzekoa.

Egia esanda, ez da lan makala, ez, lorontziak emon deuskuna. Eta ganera, ondo lotu behar. Hau da, Begoren berbetan, lan honek daukan arriskurik handiena, lanordu asko emon eta gero emoitza gutukoa ez izatea, edo prozesuan zehar zeozer apurtzea edo okertzea. Ez da harriztekoa, beraz, holango gauzak, platerak, jarroak, ontziak saltzeko beharraldi horrerik dagokiona eskatzea!!

Azkenik, gai horren ganean, saldu ala ez, berba egin dogu Begogaz. Berak esandakoaren arabera, ikasleek ez dabez egindako lanak saldu gura izaten, asko kostata lortu diran lanak diralako. Batzuetan, Derion egiten dan artisautza azokan esaterako, jendeak tailerraren lana ikus dagian salgai ipinten dira egindako lanak, baina ez da ohikoa. Dana dala, irakurle hori, zeozer, artisautza-lanen bat erosi nahi izan ezkeru, AIKORera deitu eta zeramika tailerrarekin harremanetan jarriko zaitugu.

Testua eta argazkiak: Fernando Larrondo



Tornua da ikasleei gehien kostatzen jaken teknika.

ATSEDENERAKO EKIPOAK. % 100 LATEX NATURALA

10 URTEKO PERMISA, PROTEIN GIETAN ERABILTZE GARRIAK

ARTEAGA

KULTURAREN BERRIKERAK

Artisanoak Berriak Seminarekin

BERIO

Telefonoa: 94 454 52 47

1000 BERRIKERAK

Artisanoak Berriak Seminarekin

10-0000. 13:00-ora

ora: 16:30-ora 20:00-ora

igandaketatik 11:00-ora 1-1474



“Abisakoa gure berriketarekin”

Robe Iniesta, Extremoduro taldeko abeslaria:

“Konposatzea gonbito egitea bezalakoa da, hitzak barrutik atera behar dira”



Testua: Itxaso Marina

Hasteko, bihotz-bihotzez eskertu behar diogu Roberi elkarrizketa hau eman izana. Izan ere, ez zaio batere gustatzen prentsarekin solasean egotea. “Ez dit grazia handirik egiten... Beno, hemengo aldizkaria denez...” komentatu zigun elkarrekin telefonoz hitz egin genuenean. “Argazkiren bat ere...”, saiatu ginen. “Ez, argazkirik ez” esan zuen.

Extremoduro musika proiektua 1987an jarri zuen abian. Lehendabiziko maketa grabatu ahal izateko, 1.000 pezetako baleak saldu zituen lagunuen artean, diskoa emango ziela aginduta. Handik aurrera, kontzertuak, kontratuak eta negozio honetako gazi-gozaok ailegatu ziren. Merkatuan bederatzi lan edukita, Extremoduro taldeak goi mailako postua lortu du gaur egungo musikaren munduan. Poetaren hitz zorrotzak sakon sartu dira gazteengan.

Lehenengo galdera derrigorrezkoa da, zer egiten du Plasenciako batek Lezaman?

Eta zer egingo dut Plasencian, ba? Hor ez dago zereginik. Extremadurak eta biok ez daukagu gauza handirik elkarren artean... Oporretan joaten naiz familia eta lagunak ikustera, besterik ez. Dena dela, Lezamara etorri baino lehen, Granadan bizi izan nintzen, baina taldekideak hemen zeuden, hemen egiten genituen entseguak, hemen zegoen estudioa... eta den-

bora gehiegi ematen nuen errepidean. Horregatik, hona bizi izatera etortzea erabaki nuen orain dela hiru urte.

Pozik?

Oso gustura nago. Andaluziako jendea, adibidez, hemengoa baino irekiagoa dela esaten dute, baina nik hemengoa bere kontuez arduratzen dela esango nuke. Beraz, hemen lasaiago bizi zara. Tragoren bat hartu ahal duzu eta mundu guztiarekin hitz egin, inork gogait eragin

barik. Izan liteke inork autografoa eskatzea, baina dena normalagoa da. Izan ere, kalera irteten zaren bakoitzean mundu guztia hasten bazaizu harekin eta honekin gogait eragiten... azkenean, kristoren amorrua ematen dizu.

Abestietan sentitzen duzuna azaltzeko oso modu berezia daukazu, zer dago hitz horien atzean?

Ezin dut azaldu. Abestien bidez sentimenduak adierazten dituzu, pertsona

bakoitzak era batean edo bestean har ditzakeen hitzak. Extremoduroren abestiei buruzko hainbat interpretazio irakurri ditut Interneten, batzuk baliozkoak dira eta beste batzuk ez. Nik ez daukat zertan ulertu neure abesti guztiak. Nik badakit gauza batzuek inspirazioa ematen didatela, eta kito! Abestien arteko lotura egotekotan, banakotasunaren aldarrikapena izan liteke, masatik irten beharra.

Dena dela, Extremoduro taldeak oso jarraitzaile gazteak ditu. Beldur zara ez ote dituzten txarto ulertuko zure hitzak?

Bai, baina horrek ez du bueltarik. Halako abesti zehatza egiten duzunean, mundu guztiak badaki zertaz ari zaren. Jendeak pentsatzea nahi duzunean, berriz, gauza abstraktuei buruz idazten duzu eta bakoitzak nahi duen bezala hartuko ditu

“Abesti bat ona bada, entzuten duzun bakoitzean gauza ezberdinak sentitu behar dituzu”

zure hitzak. Gure web orrian jendeak abestiei egindako interpretazio batzuk ez zitzaizkidan inoiz burutik pasatuko, beste batzuek asmatzen dute... edota beste ikuspuntutik hartzen dituzu denboraren poderioz. Nire ustez, abesti bat ona bada, entzuten duzun bakoitzean gauza ezberdinak sentitzen dituzu.

“Musikari hutsa, eta hori bakarrik, izango banintz, ez nintzateke hain errealizatuta sentituko”

Zer zara, poeta ala musikaria?

Poeta izatea gehiago gustatzen zait. Zerbait berria ateratzen zaidanean, errealizatuta sentitzen naiz. Kontzertu batean jo behar duzunean, urduri zaude, ondo egin behar duzulako... Gainera, zu joan ezean beste talde batek jo dezake eta ez du hainbeste ardura. Konposatzeko orduan, berriz, zeuk ez baduzu abesti hori idazten, beste inork ez du idatziko. Galduta zegoen zerbait aurkitu duzu eta hark bete egiten zaitu. Musikari hutsa, eta hori bakarrik, izango banintz, ez nintzateke hain errealizatuta sentituko.

Eta poetak arima botatzen du idazten duen bertso bakoitzean?

Ez dakit beste era batera egiten. Urtero disko bat ateratzea gustatuko litzaidake, baina ez dago modurik. Barrutik irten behar dit. Oka egitea bezalakoa da... Jende askok sartzen ditu atzamarrak ahoan, baina barruan zerbait duzunean berez irtetea da normalena. Denboraldi



Robek, abeslaria eta gitarra-jolea, Iñakik gitarra-jolea, Miguelek, baxu-jolea eta Canterak, bateria-jolea, osatzen dute Extremoduro taldea.

luzeak eman ditut hitz bat ere idatzi gabe eta hutsik egongo banintz bezala sentitu naiz... Hitzak lotu nitzake, baina barrutik atera behar dira, bestela ez dute balio.

Nola etortzen da musa poetarengana?

Ba, ez dakit, ailegatzen da, eta kito! Sekretua jakingo banu, abesti bat idatziko nuke aste guztietan. Izan ere, itzela izaten da sortu duzun abestia, besteek entzuteko, lokalera eramatea. Gero konponketak egiten dizkiozu emozio handiz... Haren zain egon behar duzu, gitarra hartu, burua zabalik eduki... Denbora luzea ezer idatzi barik ematen duzunean oso txarto pasatzen duzu.

Denbora pasa ahala, indar berberarekin jarraitzen da aldarrikapenak egiten, edo gauzak lasaiago ikusten dira?

Bai, errebindikatzen jarraitzen duzu, baina batzuetan argiago azaltzen duzu eta beste batzuetan gaiarekin bueltaka ibiltzen zara. Abesti bat maitasunari buruzkoa dela eman arren, zure benetako asmoa beste gai bat aldarrikatzea izan daiteke. Normala da ikasiz joatea. Gauzak ulertu eta sentitu egin behar dira. Ez du balio inork hau txarto edo ondo dagoela esateak. Nik nahiago dut jendea ausnarketara bultzatu.



2002. urteko biran taldeko gitarra-jolea den Iñakirekin.

Itza herrietan
bikotatu gure elkarrekin
eta ondo pasatu AEB-kin

Erreparatu zure itzulia
Guztiz. 5 Dena
Txi. 94 54 00 62

ask

TRUZEKIN BIZI UZAIL

EUSKALIEGIA

**Udako ikastaroak
Matrikula zabalik**

Herriko Plaza, 9 - 48100 OLEA (Nabokoa) - Tel. 944 54 00 62
Fax: 944 54 07 08 - E-maila: euskaliegia.bonaria@truzekia.org

Taldea sortu zenetik, 1987 urtean, denbora franko igaro da, kontzertu asko... Errepidea gogor egiten da?

Ez, ez dugulako kontzertu gehiegi ematen eta, gainera, bizi izateko ez dugulako diru askorik behar izaten. Normalean, bi edo hiru urtean behin egiten dugu bira bat. Jendeari kalitatea eskaini nahi badiozu, neurtu egin behar dituzu. Kontzertu asko jarraian ematen badituzu, teknikari gutxi eta kalitate txarreko ekipoak eraman behar dituzu eta horren ondorioz maila jaitsi egiten da. Aurten ez dugu birarik egingo, ez litzatekeelako aurrekoa bezala irtengo... Beno, uda amaieran, ziur nago, neure buruari esango diot "Joder!, Zertan zabilta hemen?..." Hala ere, aukera hau egokiena dela uste dut. Datorren urtean errepidera irten eta kalitate oneko kontzertuak eskaintzen saiatuko gara. Beste

alde batetik, birak bakanago egiten dituzunean gogo handiagoz egiten dituzu gero, eta benetan jotzen duzu. Iazko bira, adibidez, itzela izan zen. Teknikari eta musikariren artean giro polita sortu zen, gogo handiz igotzen ginen eszenatokira... Nire iritziz, horrek ezberdin bihurtzen du kontzertu bakoitza.

"Eszenatoki gainean ez banintz hain urduri paratuko, ez litzaidake hainbeste gustatuko"

Eszenatokira igotzeak errespetua ematen dizula entzun dugu...

Bai. Askok esaten dute, urduri paratu ezean, ez litzatekeela benetako gauza

izango. Maila batera ailegatzen zarenean, jendeak mailari eustea ez ezik hobetzea ere espero du zugandik. Baina, ez bakarrik jendeagatik, baita zure buruagatik ere. Gero eta hobeto egin nahi duzu eta urduri paratzen zara. Horregatik, azken bira lasaiagoa izan da, gauzak ondo egiten direnean dena errazagoa delako. Agian, ez banintz hain urduri paratuko, ez litzaidake hainbeste gustatuko...

Non jotzen duzu erosoago, leku txikietan ala handietan?

Leku txikietan jotzeak ez du besterik adierazten baliabide gutxi duzuela baino. Era berean, dibertigarriagoa izan daiteke..., baina okerragoa da. Gaur egun nahiago dut kontzertu handiekin gozatu eta ekipo ona eraman.


Mila doinu aidien

Orain dela gutxi kolaborazioa egin duzu Gatibu taldearekin. Zer moduz zure bizkaiera?

Apur bat zaila izan da. Abestia grabatuta neukan eta ikasi egin nuen, neure barruan itzuli nuen, baina haien hizkerara mugatuz. Gauza batzuk beste era batean esango zenituzke, baina, noski, hitza ez bada e-z amaitzen, ez du errimarik egiten hurrengoarekin. Ahoskatzeko orduan, gauzaren bat esatea kostatu egin zait, esaterako, hain arraroak diren "aiu" horiek. Ez nuen lortu dena ondo ahoskatzea...

Zer dela eta kolaborazio hau?

Lagunak gara eta beti gabiltza lñakiren estudioan zer edo zer egiten. Proposatutako zidaten eta nik atsegin handiz esan nien baietz.



Euskara ikasten zabilzala uste dugu...

Bai, eta oso gaitz egiten zait. Esaldi bat botatzen dudan bakoitzean irakasleak "Hau!" esaten dit. Baina gustukoa dut. Garunak erabili behar ditugula pentsatzen

dut. Katalunian egon nintzenean, katalanera ikasi nuen eta orain, hemen bizi naizenez, euskara ere ikasi behar dut. Beno, pixkanaka-pixkanaka, gauza batzuk ikasita pozik geldituko nintzateke.

AVRTENETXE, S.A.
IRAGIARAREN SAI BIRTA ETA KONPOSARETA
NEZARTEAN - LORZUANEA

ERABILTZAILEA ETXERAKO

Arakile, 45	Astoria, 37
El Sagrado, 1	Leizaola, 11
Iturrizte, 1	Leizaola, 11
Alto de Ibañeta, 1	Leizaola, 11

CAJA LABORAL LUGARADIKO KUTXA

Txerri 1 lekuak, Pasaia, 36
 Telefonoa: 944 211 310
 1.800.999.000 / 010
 GUTUO LIKIDUO / LIKIDUO

Pasaia 1 lekuak, 1
 Telefonoa: 944 243 002
 1.800.999.000 / 010
 GUTUO LIKIDUO / LIKIDUO

Espezialitateak:

- Festival
- Plaza irekikoak
- Erakunde erakundeak
- Antzerkiak
- 1.800.999.000
- 010
- GUTUO LIKIDUO

Yeretik irekia

Crazy Guitar

Zatutako

Noizko lan berria?

Orain buru-belarri gabiltza abestien bil-duma prestatzen. Gabonetan kaleratzeko asmoa daukagu, baina eztabaida itzela sortu da gure artean zein abesti sartu eta zein ez erabakitzen, eta gauza luzatzen hasi da.

Musika munduan hasi zinenean, taldea gaur egun dagoen lekuan egon zitekeela pentsatu zenuen inoiz?

Hasierak gogorak dira eta horretan sinesten ez baduzu dena popatik hartzera bidaltzen duzu lehenengo desilusia hartzen duzunean. Horregatik, zeure buruari sinetsarazi behar diozu lortu ahal duzula. Nik musikatik bizitzea nuen helburu, posible izango zela pentsatzen nuen.

Eta mundu honek desengainatu zaitu?

Negozio honetako alderdi batzuek bai. Horregatik negozioaren eta zeure interesen arteko oreka bilatu behar duzu. Nik neure lanetik bizi nahi izan arren, ezin dut konposatu dendetan saltzeko musikarik, neure musika saltzea lortu behar dut.

“Euskarazko musika talde bat edukiko banu, proiektu osoa autofinantzatuko nuke”

Putakeria asko egiten dizkizute, eta ez bakarrik diru kontuetan. Batzuetan, disko-
ren bat beste portada bat ipinita kalera-
tzen dute edo kamiseta bat hartu eta zuk
inoiz esan ez duzun esaldi bat jartzen
diote... Arrastoa sartuta eduki behar ditu-
zu. Guk nahi duguna egitea lortu dugu.
Nahiz eta horrek esan nahi duen urtero
disko bat atera behar dugula, ezin digute
exijitu, kaka hutsa izango litzatekeelako...
Haiek aterako lukete, baina nik ez nioke
emango, behintzat.

Hau guztia kontuan hartuta, eman aholku bat musikan leku bat egin nahi duten gazteei.

Nik euskarazko musika talde bat edukiko banu, proiektu osoa autofinantzatuko nuke eta paso egingo nuke diskoetxez eta banatzaileez, hasieran egin nuen bezala. Hemengo diskoetxe gehienak zikoizkerian ibiltzen dira estudioetan, eta erdipurdiko promozioa ateratzen dizute. Euskarazko musikak hemendik kanpo ere merkatua duela uste dut, baina horretarako ezinbestekoa da soinu ona izatea. Gainera, zeure kabuz 5.000 disko saltzen badituzu, konpainiarekin 50.000 salduta baino diru gehiago irabazten duzu.

Top manta negozio ona da, ezta?

Egundoko negozioa. Zeure diskoa hor ikusteak izugarri izorratzen zaitu, baina



Kontzertua jo baino lehenagoko azken ikutuak.

ikuspegi guztietatik aztertu behar duzu. Alde batetik, etorkinak hartatik bizi dira eta, beste alde batetik, diskoetxeentzat zein musikarentzat kristoren putakeria da. Nahiz eta dirua galdu, talde handiek jarraitu ahal izaten dute kontzertutan ateratako diruarekin. Beste alde batetik, zeure lana heltzen da bestela diskorik erosi ezin izango lukeen jendearengana. Baina talde txikiak pikutara joaten dira konpainiek ezin dituztelako mantendu. Horren guztiaren ondorioz, ez da egongo aniztasunik, eta musikaren globalizaziora joko dugu.

Zer izango litzateke Robe Iniesta, ez balitz poeta izango?

Ez dakit, ez banu aurkitu sortzeko zer-bait, drogazale peto-petoa izango nintzen, agian.

ANDRA MARI Klinika



NUTRIZIOA ETA ELIKADURAREN ARAZOAK
Elena Uñac Ibarra doktorea

ÓPTALMOLOGÍA
Edurne Fozandilla doktorea

HOMEOPATIA
Immaculada Aguirre doktorea

ANÁLISI KLINIKOAK: LABORATORIOA
Pilar Ramila doktorea

OTORRINOA
Ramón Cascon doktorea
Belén de la Igueria doktorea

PSICOLOGÍA KLINIKOA
Cristina Galaya Ibarretxe

KIRURGIA OROKORRA
J. M. García Mazaña doktorea

LASER BIDEKO DEPILAZIOA
Ireneia Urra doktorea

LOGOPEDIA-LOGOPEDIATRIA
Lola Silvano diplomadua

KIRDL MEDIKUNTZA
Susana Gil Orozko doktorea

GINEKOLOGIA
Jesús Etxebarria doktorea

ERRADIOLOGIA OROKORRA
J. Antonio Rodríguez doktorea
J. Antonio López doktorea
Antonio Marco doktorea
Aracelio Martínez doktorea

FISIOTERAPIA
Eva Javier Diaz diplomadua

KARDIOLOGÍA
Gorka Martínez doktorea

DERMATOLOGÍA
José Manuel Olaga doktorea



Larrakoetxe herri kirol taldea



“Momentu honetan, 3000 kiloko probarriagaz idi-dema egiten dan probaleku bakarra da Loiukoa”

Egin daigun historia apur bat: lehen zaletasun handia egoan eta antolatzaileak auzokideen artean antolatzen zituen probak, danon artean aurrera atarateko bitarteko lanak; karrejuaren prestatze lanak, publizitatea, idientzako belarra nork ekarri, proba bitartean noren gortan edo tejoban gorde leitekezan idiak eta, horrez ganera, ondoko jaiak be bai.

Zaletasun hau mantentzea bertako auzokide batzuei eskertu beharko deutsegu, eta danen artetik aitatu beharrekoak diralako gogoratu behar doguz batzuk, batez be, Juan Begoña Zozoa eta Eduardo Bilbao; hareek inguruko baserrietako lagunak inplikatur ipintzen eben martxan jaiak.

Herri kirol talde hau Loiu herrikoa da eta bere historia eta ibilbidea kontatzera goaz artikulu honetan.

Loiuko –Larrakoetxe– probalekua betidanik ezaguna eta ospetsua izan da herri kirolaren zaletasuna izan dabenen artean. Aspaldiko urteetatik honantza makina bat proba egin izan dira bertan. Euskal Herri mailan Larrakoetxeko probalekuak, inguruko probalariak eta idi buztarriak izan

daben garrantzia eta pisua aitatu beharrekoa da, gaur egun be badabena, ze momentu honetan 3.000 kiloko probarriagaz idi-dema egiten dan probaleku bakarra da eta, jakina denez, modalitate honetarako hiru karreterugaz joaten dira idi buztarriak. Probarria karrejuan bertan dago.

Idi probak, San Pedro osteko egunean antolatzen eben, ziur, baita beste askotan be. Eta, esan dogun moduan, euron artean lan guztia ondo antolatuta egoan. Gainera, kirolaren edo ekitaldiaren ostean erromeria be antolatzen eben, trikitixa edo eta jazbana jotzen zan eta Larrakoetxe



HERRIKIROL TALDEAK	
INDUSTRIAL PIZKARREN 2000-2005 Pila: 2000-2005 Pila: 2000-2005 Balonak: 1.000-1.000 2000-2005 Balonak: 1.000-1.000	ELKARTEEN TALDEAK 2000-2005 2000-2005 2000-2005 Balonak: 1.000-1.000
ELKARTE 2000-2005 Balonak: 1.000-1.000	HERRIKIROL TALDEAK 2000-2005 Balonak: 1.000-1.000
HERRIKIROL TALDEAK 2000-2005 Balonak: 1.000-1.000	

“Idi probari eusteko asmoz Larrakoetxe Herri Kirol Taldea sortu zan 1987. urtean”

inguruko auzoan orduko gazteentzat jai polita izaten zan; konbidauak eta guzti egoten ziran.

Urteak pasa ahala, ohiturak eta modak aldatzen eta galtzen doaz eta herri kirolak be aldatzen edo galtzen joan dira, baina inguru honetan nahiko aldatu arren be, idi proba berari eutsi egin jako eta horretarako 1987. urtean Larrakoetxe Herri Kirol Taldea sortu zan.

Zeozer berezia dauka inguru honek, baserritar sustria edo baserri inguruko kirola mantentzera bultzatzen dauena. Beharbada horrexegatik, Bizkaiko Euskal Kirol Federazioa sortu zanean, bertan bilera batzuk egin ziran aurrera euskal kirola atarateko. Orduan, Larrakoetxe inguruan egon zan eta dagoen afizinoari eutsiz –eta probaleku barria bertan egoalako– Larrakoetxe Herri Kirol Taldea sortzen da. Garai hartan, federazioan konpromisarioak egon ziran sartuta (Sabin Latorre eta Santos Aurrekoetxea) eta harek be bultzatu eben.

Taldea sortu zanean, 30 kide aldera ziran eta konpromiso zuzena hartu zan antolakuntzan eta lanean bertan aritzeko. Zuzendari eta presidentea Fermin Garin izan zan. Giro oso ona egoan eta inguruko tabernari guztiak laguntzen eben

Ekintza ezagunenak probaleku inguru-koak izan ziran: idi probak antolatzen dira

–pisu librekoak Gabon inguruan, eta pisu txikerrekoak, sanpedroetan–. Zaldi probak be egiten dira, baina lehen gehiago; hemen, inoiz urten bako zaldiakaz be egin ziren probak, hau da, kinttopeko zaldi probak. Asto probak be jokatu dira.

“Aspaldian, gizon proba bat be egin zan. Desafio horretan 3 tirakalari egon ziran alde bakoitzetik tiratzen ebela”

Hortik aparte, talde honek ferilekuari atarramendua atara gurean, Aizkolariaren Euskal Txapelketa Nagusiaren errebantxa antolatu eban bertan eta orduko bost aizkolari ezagunenak hartu eben parte. Horrez gain, buztarri bakarrek desafioko be egin zan. Gizon proba bat be egin zan, eta desafio horretan 3 tirakalari egon ziran alde bakoitzetik tiratzen ebela. Proba hori momentu hartan egon ziran probalaririk onenakaz egin zan, eta ordurako erretirata egon ziran Leoia eta Agustin Unamunzaga be berregantxatu egin ziran desafio horretarako. Bestalde Bizkaiko trontzalariaren txapelketa bat egin zan, baita Euskal Herriko sokatira txapelketa bat be.

Loiuko Udalak eta Federazioak emondako diru laguntzetatik aparte, sarre-rra kobratuz, zozketak eginez eta txosna ipiniz ataraten zan dirua. Sarietatik eta antolakuntzatik dirurik sobratzen bazan, herrian egoan “Huerfanos de la Casilla”-ko umezurtzei emoten jaken.

Apurka-apurka ferilekuko ekitaldiak ixten joan ziran, baina herriko jaietan –Loiun eta Lauroetan– gaur egun be parte hartzen da eta Larrakoetxe Herri Kirol Elkarteak jarraitzen dau herri kirolak antolatzen, eta Gabonetan pisu libreko idi probak egiten dira Larrakoetxe-ko probalekuan.

Probalari ospetsuak pasatu dira hemendik. Batzuk aipatzearren: Orioko Oriden, Aiako Izeta, Leioako Olegario eta hainbeste gehiago. Beste alde batetik, ezin gara gelditu etxeko idi buztarri ospetsuak aipatu barik. Laiñeko Santos eta Martin Aurrekoetxea, bertatik, Laiñeko baserritik urtendako idi buztarriak gaur egun be hor dabilta punta-puntan. Esate baterako, iaz Martin Laiñekoak irabazi eban 14 buztarri artean lehiatu ondoren. Horrez ganera, Faustino eta Jesus Aurrekoetxearren idi buztarriak eta Sabin Latorrenak be aipatu behar doguz.

“Probalari ospetsuak pasa dira Loiuko probalekutik: Orioko Oriden, Aiako Izeta...”

Bukatzeko galdera bat jatorku. Zenbat baserritar dago Loiun baserri hutsetik bizi direnak? Gaztea dena, bat bakarra dagola uste dogu. Idi jabeak baserriaz ganera beste lan batetik bizi direnak dira eta holan zaletasuna mantentzen dabenak. Guztiori ZORIONAK eta eskerrik asko, kirolean, gure historiako parte izaten jarraitzen dozelako, eta letra handiz gainera!


Testua: Belen Gana / Argazkia: Itxaso Marina



ZANDUZ
LARRAKOETXE
Herri Kirol Taldea
Bilbo



GAZTEAK
LARRAKOETXE
Herri Kirol Taldea
Bilbo



IZETAK
LARRAKOETXE
Herri Kirol Taldea
Bilbo



Tximeleta
LARRAKOETXE
Herri Kirol Taldea
Bilbo



LASAI
LARRAKOETXE
Herri Kirol Taldea
Bilbo



DERIO FRUTADENDA
LARRAKOETXE
Herri Kirol Taldea
Bilbo

Sasoiko ortu-produktuak

Baserritarrarena lan gogorra dela ondotxo daki Zamudioko Tomas Landetak. Izan ere, aspalditik dabil soloko lanetan. Bai, lurak ez du jaiegunik ezagutzen eta oporrak "azkar eta txarto" hartzen dira. Sasoiko ortu-produktuak zeintzuk diren jakiteko asmoz, berarengana jo dugu.

Beno Tomas, zeintzuk dira produktu horiek?

Tomateak, piperrak, letxugak, azelgak, bainak, indabak...

Ikusten dugunez, negutegietan zein kanpoan hainbat barazki dituzu. Nola zaindu behar dira?

Barruan kanpoan baino tratamendu gehiago behar badute ere, nahiko antzekoa da sistema. Lehenengo eta behin, leku berotan haziak dadotan jartzen dira. Astebete edo bi pasatu ondoren, landarea hazi eta lurrean landatzen da. Gero, egunero ureztatuz eta abonua eta behar duten tratamendua botatzen zaizkie astean behin edo.

Zelan dator uzta aurten?

Egia esan, ez lar ondo. Izan ere, oso eguraldi ona izan ez dugunez, hau da bero-

tik hotzera pasatu garenez derrepente, landare asko gaixotu egin dira. Gainera, batzuek zorriak dituzte eta, noski, plagaren kontrako tratamendua bota behar zaie.

Garai hau ona da saltzeko?

Bai, ona da. Orain tomateak, letxugak, piperrak... ondo saltzen dira. Negua lasaigoa da eta orain aprobetxatu behar dugu.

Merkabilbaora joaten zarete saltzera, zelan dago egoera?

Prezioak ez dira bat ere onak gero eta kompetentzia handiagoa dago eta. Produktu asko Marokotik edo Almeriatik, esate baterako, etortzen dira...

Baina kalitatea ez da izango berdina?

Ez pentsa, nahiz eta produktu batzuek hemengoan zaporerik ez eduki, beste asko ez dira kalitate txarrekoak. Gauzak aldatu egin dira. Orain, hozkailu-kamioietan ekartzen dituzte eta presentazioa ere hobetu da. Gainera, hemendik kanpo eguraldi hobea egiteaz gain, makinak erabiltzen dituzte lana egiteko eta, guk, berriz, eskuz egiten dugu. Horrexegatik dira prezioak hain merkeak. Adibidez, duela 15 urte piperrak 500 pezetatan saltzen ziren, baina orain merkeagoak dira.

Gaur egun, baserritarren egoera ez da ona. Oraintxe komentatu duzunaz aparte, beste faktorerik badago?

Bai, beste faktore askok ere eragina izaten dute. Gaur egun emazteak zein senarrak etxetik kanpo lan egiten dutenez ez dute egunero etxean jaten. Umeek ere ikastolan egiten dute. Hori dela eta, kontsumoa jaitsi egin da. Halaber, produktu izoztuak erosten dira...

Hori dela eta, gogor egin behar da lan, ezta?

Dudarik gabe. Goizeko 6etan Merkabilbaon egon behar dugu. Baserrira itzulita egun osoa ematen dugu lanean, igandeak barne. Izan ere, saltzera joan ahal izateko produktuak prestatu egin behar dituzu. Eguneroko lana izateaz gain, ordu asko eman behar dituzu soloan eta, horrexegatik, askok beste leku batean lan egitea nahiago dute.

Zelakoak dira lan baldintzak?

Ez oso onak. Gaixorik egonda baja hartzen baduzu ez dituzu lehenengo hamabost egunak kobratzen. Gainera, jubilatuz gero 70.000 pezetatako soldata geratzen zaizu. Beraz, lanean jarraitu behar duzu soloan. Horretara, bada, gurea beste langileen gizarte segurantzarekin parekatu eta Estatuko beste herrietan baserritarrek dituzten dirulaguntzak geuk ere jaso nahi genituzke.



Tomasek ordu asko ematen ditu egunero soloko lanetan.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

CANDIAGA
SEMINARIOTERIA
Herriko/Herriko/Herriko
Herriko/Herriko/Herriko
Herriko/Herriko/Herriko

TALLEBES JUAN ANDRES
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko

Txorierri
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko

KIMA
Landareak
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko

SAKTI LEGU
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko

Herriko/Herriko/Herriko
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko
Herriko/Herriko/Herriko/Herriko/Herriko

BUGBEAR.B

Testua: Alberto Legarreta

Ekainaren lehenengo egunetan sortu eta zabaldu da. Birusa denpora gitxian izan da arrakastatsua eta hainbat komunabidetan entzun dogu horren barri. Kotxo mota hau dagoaneko galera asko sortu dau. Kotxoak (Worm), zorrotza izanda, ez da birus bat baina birustzat hartzen da, "bere buruaren" kopiak egiten ditualako, hau da, autokopiatu egiten dalako.

Ezaugarriak

-Kotxo hau sareko errekursoetara zabaltzen da email bidez. Email honek daroan fitxeroak birusa dauka.

-Polimorfikoa da, bere itxura aldakorra da.

-Ordenadoreko programak infekta-tzen ditu.

-Outlook Expresssek daukan akatsa (bug) erabiltzen dau zabaltzeko.

- Antibirus eta Firewall programak bukatzen ahalegintzen da.

- Sarean daukagun inpresoreetan inpresio arraroak agertu daitezke.

Antibiruseko enpresek oso larritzat hartu dabe, eta teknikarien ustez baliteke CodeRed sortutako galerara (3.000 euro) iritsiko dala. Orain arte 'I love you' da galerarik gehien sortu dauana (9.850 euro).

Aholkuak

1.-Antibirusa ondo erabili eta eguneratua euki

2.-Firewall euki instalatuta.

3.-Backup bat egin aldizka.

4.-Fabrikanteen partxeak sartu programetan.

5.-Beti arretagaz ibili.

- Email bidez etorten diran fitxeroakaz.

- Internetetik jaitzi dituzun fitxeroakaz.

- Eta abarrekaz...

Artikulo hau 2002 maiatzaren idatzita-koaren gehigarria da.

Zelan Garbitu?

Iadanik antibirus enpresa guztiak bakuna sortu dabe. Beti dago aldi bat birus detektatzen danetik bakunak ateratzen diran arte, horregaitik beti egin behar dogu adi, nahiz eta antibiruseko azken bertsioa euki.

Bakuna jaisteko helbideak:

BitDefender

Jaitzi "Antibugbear-es.exe" (57 Kb) eta zabaldu zeure sisteman:

<http://www.bitdefender.com/descarga/evaluacion/Antibugbear-es.exe>

Copyright (C) BitDefender 2003.

Panda

Jaitzi "Pqremove.com" (1.2Mb) eta zabaldu zeure sisteman:

<http://updates.pandasoftware.com/pq/gen/bugbearb/pqremove.com>

Copyright (C) Panda Software 2003.

Symantec

Jaitzi "FixBug.exe" (159 Kb) eta zabaldu zeure sisteman:

<http://securityresponse.symantec.com/m/avcenter/FixBug.exe>

Copyright (C) Symantec 2003.

Helbide Interesgarriak:


<http://www.vsanivirus.com/bugbear-b.htm#tool>

Aramu bakartien sarean III

" Hau argitaratze irekiko gunea da. Nahi baduzu zure albistea argitaratu dezakezu". Ongi etorriak, hau www.euskalherria.indymedia.org da. Orrialde honetan sartuaz batera, munduan zehar bidaiatzen hasten gara. Ez palmeradun hondartzetara, ez esaten dutenaz nazkatuta dauden gidarien azalpenetara ezta denbora galarazten diguten eta antza derrigorrez bisitatu behar ditugun museo hits eta aspergarrietara ere. Polizien jazarpenari aurre egin gura dieten mundu guztiko barrikaden itxaropenera, autogestioaren plater goxoak dastatzeko ostatueta eta gure antzeko malurak izaten dituzten mundukideen kaleetara eramango gaitu, izarloken altzozan, indymedia bidai-agentziak.

" Indymedia Medio Independienteen Gunearen izena da. Medio Independienteen Guneak Seattlen sortu ziren, Nazioarteko Foro Monetarioaren kontrako protestaldiekin batera. Kale mailako ekintzaileei haien mezuak transmititzeko bidea ziurtatu nahi zen, horretarako, borrokatzen zituzten korporazio multinazionalen menpeko komunikabideez baliatu behar izan gabe". Horixe da FAQ (frequently asked question) sakatzu gero leidu ahal izango duguna. Eta beste hainbat azalpen ere; nola funtzionatzen duen, zertarako balio duen, zelan argitaratu... Esan dugu globalizazio neoliberal kapitalistaren aurkako mugimenduaren borroka jasotzen ahalegintzen dela eta horretarako ekologia, deialdiak, zientzia, eknologia eta sarea, Giza Eskubideak, erresistentzia globala, inmigrazioa, kriminalizazioa, euskara eta kultura, internazionalismoa, antimilitarismoa eta bakea, sexualitatea eta emakumeak ataletan sailkatutako informazioa biltzen du ezkerreko zutabeen. Berri horiek euskaraz, gaztelaniaz eta beste hizkuntza batzuetan idatzita daude eta, egia esan, euskaraz daudenak gutxi dira, euskaldunak gutxi baikara. Zutabe hau irakurri eta bertara sartzea erabakitzen baduzue, berba eder hauek hartuko zaituztete: "Euskal Herriko Gizarte Foroa: Bestelako Euskal Herria ezinbestekoa da". Geu be hortan gabiltza.

Testua: Bihotz bakartien klubeko kidea



FMC Forest, S.L.
 Zabaldu Peltre
 C/ San Bartolome 140
 48940 Leizor (Bizkaia)
 Tel: 945 41 11 44
 Fax: 945 41 11 44

FMC forest

SUNOS COMPUTERS, S.L.
 C/ San Bartolome 140
 48940 Leizor (Bizkaia)
 Tel: 945 41 11 44
 Fax: 945 41 11 44

SUNOS COMPUTERS

LAUBURU
 HERRIKO BAZOIA
 48940 Leizor (Bizkaia)
 Tel: 945 41 11 44

LAUBURU

San Pedro eta Santa Luzia jaiak Loiun

Txorierri ez dago geldirik. Loiun ere ondo pasatzeko aukera daukagu. Izan ere, San Pedro eta Santa Luzia jaietarako hainbat ekintza antolatatu dituzte Udalak eta Jai Batzordeak. Hona hemen jai egitaraua:

Ekainak 27, ostirala

18,00etan: Top karaoke-diskofesta, Betizu saioko aurkezle eta abestiek
20,00etan: Kalejira, Emperadores mariachi taldearekin
20,30etan: Saiheski errea guztiontzat
21,30etan: Emperadores mariachi taldearen emanaldia
23,30etan: Berbena, Triki Take taldearekin

Ekainak 28, larunbata

11,30etan: Umeentzako margo lehiaketa
12,00etan: Umeentzako kirol ekintzak (14:00ak arte)
17,00etan: Umeentzako kirol ekintzak (21:00ak arte)
20,00etan: Meza, Klarisetako kaperan
20,30etan: Sardina jana
23,30etan: Kontzertua Gatibu taldearekin. Ondoren, berbena Ene bada! taldearekin

Ekainak 29, igandea (San Pedro)

11,00etan: Meza, Klarisetako kaperan
11,30etan: Haur parkea: puzgarriak
12,00etan: Zaldien salto erakustaldia
12,30etan: Meza, San Pedro Apostol parrokian
13,30etan: Trikitixa emanaldia, udal tailerreko umeekin eta Roberto Etxebarriaren eskolako umeekin.
18,00etan: Kale antzokia. Klaketa antzezlan Hartz muga taldearekin
20,30etan: Euskal dantzak Galdakaoko Andra Mari dantza taldearekin
22,30etan: Berbena, Egan berri taldearen eskutik

Ekainak 30, astelehena (Santa Luzia)

12,00etan: Umeentzako tailerrak
12,30etan: Meza, San Pedro Apostol parrokian
13,00etan: Santa Luziako herri lunch-a
18,30etan: Bilin bolon zirkoa: pailazoak eta magia
19,00etan Meza, Klarisetako parrokian
20,00etan: Herri kirolak: motozerraz egindako eskulturak, aizkolariak eta trontzalariak
21,30etan: Erromeria, Joselu anaiak taldearen eskutik

Santiago jaiak Derion

San Isidro jaiak amaituta, laster izango dabe barriro jai-giroaz gozatzeko aukerea derioztarrek. Izan be, Santiago eta San Inazio jaiak dirala-ta, hainbat ekintza antolatu ditu jai-batzordeak uztaileko.

Uztailak 24, eguena

19,00etan: Txupinazoa eta jaien hasierea. Jarraian, Bertoko trikitixa taldeagaz kalejira
20,00etan: Txitxiburruntzi eta txosnen irekiera ofiziala.
23.30 Gau pasa Drindotz taldeagaz.

Uztailak 25, barikua

11.30etan: Kalejira.
12.30etan: Meza Nagusia San Kristobal eta Santiago Santuen omenez.
13.30etan: Triki-poteoa.
14.30etan: Sukalki Txapelketea.
18.00etan: Herri kirolak.
00.00etan: Erromeria Bizargorri taldeagaz.

Uztailak 26, zapatua

11.30etan: Kalejira.
12.30etan: Meza Nagusia herrian hil diran guztien alde.
13.00etan: Lainomendi Dantza Taldea.
18.00etan: Umeentzako jolasak.
20.00etan: Tortilla Txapelketea.
22.00etan: Amaiur Taldea.
02.00etan: Diskotekea.

Uztailak 30, eguaztena

20.30etan: Kalejira.
00.00etan: Ur gabe Taldea.

Uztailak 31, eguena

11.30etan: Kalejira.
12.30etan: Meza Nagusia San Inazioaren omenez.
13.30etan: Herriko Nagusientzako omenaldia eta dantza internazionalak.
13.30etan Nazioarteko dantza ikuskizuna.
15.00etan: Herri bazkaria.
19.30etan: Idi Probak. Probaleku barrian.
21.00etan: Voces Navarras taldearen ekitaldia.



GARAIOLTZA, S.A.

INDUSTRIAK ERAKUNTZAK

LEZAMA

ETXEREGITZAK, MERKATUUNTZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN BIHILAKO ERAKUNTZAK, LEHIAK HANIHAK,

ORDAINTZEKO DIRAXTASUN ILANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Udako 2008. urteko, IBI (berria)
Lezama (Bizkaia)

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l

Plaza Euzko Leizola, 1

Tel: 94 455 50 19 Fax: 94 47 06 18
48940 SOMEDIA (Bizkaia)

San Juan jaiak, aurten ere su inguruan Sondikan

Ekainaren 20an hasiera emango zaie San Juan jaiari eta baietz lagun asko hurbildu Sondikako herritarrekin primeran pasatzera! Izan ere, jai batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu adin guztietakoentzat. Bost egunean, besteak beste, esku-pilota partiduak, dantzaldiak eta umeentzako jokoak izango dira. Aurten herri bazkaria nobedade izango dute sondikohtarrek. Gainera, Oskorri eta Gatibu taldeen kontzertuak ekintzarik erakar-garrienak izatea espero dute antolatzaileek.

Ekainak 20, barikua

- 17:30 Umeentzako dantzaldia
- 19:00 Txupina eta kalejira
- 19:30 Bigantxak
- 19:30 Akordeoi kontzertua, elizan, Pentagra-ma taldearen eskutik
- 21:00 Tortilla txapelketa (ume eta nagusiak).
- 24:00 Kontzertua, Oskorri taldearekin Dantzaldia, Hotza taldearekin

Ekainak 21, zapatua

- 11:00 Kalejira eta trikitixa
- 11:30 Umeentzako parkea
- 14:00 Herri bazkaria
- 16:00 Umeentzako parkea
- 16:30 Futbito Txapelketa Goronda Beko kiroldegian, 3. eta 4. postuak
- 18:00 Futbito Txapelketa Goronda Beko kiroldegian, azkena
- 18:30 Dantza erakustaldia, Gorantzaileak taldearen eskutik
- 20:00 Zulatzaileak (La Arboledako zulatzaileak vs Zaldia norgehiagoka)
- 23:00 Suziriak
- 24:00 Kontzertua, Gatibu taldearekin
- 02:00 Dantzaldia, Sorgiñe taldearekin



Ekainak 22, domeka

- 11:00 Kalejira
- 14:30 Sukalkiaren aurkezpena
- 16:00 MUS txapelketatxoa
- 18:30 Euskal Dantzak
- 20:00 Rantxerak, Garibaldi taldearekin

Ekainak 23, astelehena

- 16:00 Eskupilota, Sondika Goronda Euskal Pilota Kirol Elkartearen partiduak
- 19:30 Bigantxak
- 22:00 Dantzaldia, Continente taldearekin
- 23:30 San Juan Suak
- 24:00 Dantzaldia, Continente taldearekin

Ekainak 22, martitzena

- 11:30 Meza Nagusia eta ohorezko aurrekua
- 12:00 Umeentzako antzerkia
- 13:30 Jubilatuentzako luncha
- 18:30 Antzerkia Jubilatuen Etxean, Oliver Produktions taldearen eskutik
- 20:00 Dantzaldia: Indarra
- 22:00 Azken traka eta jaien amaiera.

Ondo pasa su inguruan Sondikako San Juan jaietan!!

HORTZ - KLINIKA

Josune Azurmendi Garai

Tokoren Plaza, 1 - 48100
02010

Telefonoa: 945 401 000

LIENAR OSTUUNDO
ARTE EDERRAK

1991. urtean sortu zuten
Etxeak - 94 497 00 00
BILBAO (Bizkaia)

DERIO

LAURENTZAKIN 24 orduz
2000-01-01tik 2000-12-31ra

LIBRERIA SONDIKAZ LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ISKULANAK, E.A.

JOSUNE AZURMENDI GARAI

Liburuak, liburuak, liburuak, liburuak,
piztu, liburuak, liburuak,
piztu, liburuak, liburuak

Mikel Zuberu, 20 - Tel. 94 499 16 00
48100 SONDIKAZ (Bizkaia)

ISKULANAK

Arte ederra, EA

94 499 16 00 - ARTE EDERRAK

LEJARRKENE JATETXEA

Lejarrkene, 100 - 48100 SONDIKAZ
(Bizkaia)

Lagatzuren IV. mendi ibilaldia

Aurten be asteburu kulturala antolatu dau Lagatzu Zamudioko euskera alkarteak. Beste hainbat ekintzaren artean mendi ibilaldia izan da.



Artatxatik gora joanda lehenengo geldiunea Kuribilanda inguruan izan da. Bertan Etxebarri, Galdakao, Bilbo ta Zamudio banatzen dituan munarriaren kontran kopu bat hartu eta inguruko kontu batzuk entzun doguz.

Kuribilanda izena munarri baten idatzita dagoan "Gury-bio-landa"-tik etorri leitekete eta esanahia, Anton Larrazabalen ustez, toki horretan gertatutako guda biren eskutik, (oinaztarren eta ganboatarren artekoa eta Zamudio eta Legizamon leinuen artekoa)

Santamañe dogu bigarren aitatzen. Erdi Arotik 1782ra arte bertan egoan Santa Maria de Ganguren izeneko ermita, eta handik izena. Denporearen joanagaz toki hori urrin gelditu zan eta beste ermita batzuen beharrianak osotzeko bertoko materialak erabili ziran.

Banderas izeneko mendia dogu handik paraje. Elorriaga zan jatorrizko izena, baina 1791n, errekaiko itsasontziaz laguntza emoteko, toki horretan banderak jartzeko eskaria egin zan.

Ibilbideari jarraituta Viverotik behera, Torrelarragoiti da azken geldiunea.

XVIII. mendeko palazio hau Larragoiti familia bilbotarrak eraiki eban. Ondo landutako harriez eginda dago eta armarri bi eukazan. Barrukoak idatzit bat dauka: "Larragoiti, principala, auda, Vizcaian dana". Eta gure azken pausu printzipala, ibilbideari azken ona emoteko, herriko plazan Lagatzuk prestatutako gaztai eta txakolin dastaketa.

Testua: Amagoia Guezuraga
Argazkiak: Jon Ander Rola
Ane Miren Askolizaga



Nahiz eta eguraldia lagun ez izan, gogoz egin zuten zamudioztarek ibilbidea.

Sabina Askolizaga
Argazki Argazkaria
400 47 57 46
91 41 47 000
91 41 47 007

PATRI 1981-2011
Lagatzuren Lagatzen
Makery
Guztakoak
1981-2011
Lagatzuren Lagatzen
400 47 57 46

TXORIERRI
Inmobiliaria
Txorierri Inmobiliaria S.L.
Bilbo
91 41 47 000
91 41 47 007

ENTREPRENEUR - BUSINESS PLANING
Ruben
Lohamendi Zubia Plaza, 5 • Tfn: 94 452 24 49
Zamudio (Bilbao)

El Apartheid
Nº Antonio Liria
Tel: 94 452 24 49

LIPKO S.L.
Lipko S.L.
91 41 47 000
91 41 47 007

“Aselam aleikum”, zerbait nahi baduzu hemen nago

Hori izan zan Marokoko Fez hiriko, eta bertatik inoiz urten bako, biztanle batek egin eustan agurra.

Egia da munduko herrialde gehienetan espainiarrez bakarrik ezagutzen gaituela, eta batzutan hori be non dagoen ez dakie-la, baina gure burugogortasunagaitik akaso, euskal herritar lez gero eta ezagunagoak gara bai gu eta bai gure hizkuntza bitxi hau be.

Azken urteotan harean gehitxoago bidaiatzeko beta izan dot, eta pasau jatazan gauza xeble batzuk kontatuko deusuedaz:

Marokoko bitxikeri bategaz hasi naze-nez, beste bat kontatzen jarraituko dot. Heldu ginen egunean, gure lehenengo


gaua Xauen hiriko hotel batean pasatu behar genduan, eta hara heltzerakoan zelangoa izan zan gure ezustekoa, guri harrera egitera etorri ziran txokolate sal-tzaile guztiak, ikurrinaz beteriko kamisetaz jantzita aurkitu genduazanean, eta kurio-soena zan gure autobusa Madrildik ataratakoa zala, ez Euskal Herritik.

Kamisetak dirala ta, beste pasadizo kurioso bi gertatu jatazan Peruko bidai-
an: Machu Picchura ginoiazala mutil bati itaundu neutsan ea euskalduna zan eta berak harrirta baietz, Azkoitiko zala erantzun eustan, nik zelan jakin ahal neban ulertu ezinik. Ez zan akordetan “Euskal Herrian euskaraz”-ko kamiseta aldean eroanik. Baina neuri be, buelta egun berean etorri jatan. Gau horretan mutil horregaz pote batzuk hartzera atara ginan Cuzcotik

zehir, eta taberna batean gengozala neska gazte bat hurreratu jatan eta euskaraz hasi jatan berba egiten. Ni harrirta geratu nintzan, eta artaburu aurpegiagaitik, belarriakaitik edo zergaitik asmatu eban galdezka hasi nintzakon, eta berak jantzita neukan gazte asanbladako kamisetak atzean daukan ikurrinatarragaitik izan zala erantzun eustan.

Beste barik eta hurrengo aleren baten AIKOR!-ekoek bitxikeria gehiago kontatzen itxiko deustelakoan agurtzen zaituet.

Testua eta argazkiak: Jon Ander Rola



Munduko edozein herrira joanda be, euskaldunok ezagun.

“LAIA HOTEL MUSEOA”



Parke teknologikoa

Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemekin, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berriztaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atseden hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasajeko koltxonetak.

Aurreko galderaren erantzuna: Eivissan lortu zuen Virginia Berasateguik urrezko domina.

Irabazlea: Eneritz Larrañaga



LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria haxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Zenbat umek hartu zuten parte Txorierriko eskolen arteko Udaberriko jokoetan?

Bidali erantzunak (zuen telefonoarekin), ekinaren 11a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza



Txekor-masaila ardo gorria erara

Osagaiak (6 lagunentzat)

- hiru txekor-masaila (jelatina ere bai)
- hiru kipula gorri (txikituak)
- lau berakatz-zati
- bi azenario
- porrru bat
- piper berde bat
- tomate heldu bat
- piper txorizero bat
- oliba olioia
- irina
- Errioxako ardo gorria
- barazki-salda edo ura
- gatza
- piperbeltz beltz ehotuta

Prestatzeko era

Gatzaz eta piperbeltzez ondu eta irinetik pasatu ondoren, txekor-masailak oliotan gorrituko ditugu. Kazuela batean olio apur bat jarri eta barazkiak sueztituko ditugu. Erdi gorrituta daudenean txekor-masailak botako ditugu. Gero ardo litro erdi gehitu eta gutxitzen utziko dugu. Ondoren, salda edo ura botako dugu okela estali arte eta su epeletan izango dugu 60 minutuz, gutxi gora behera.

Aizto batez konprobatuko dugu ea ondo eginda dauden. Horrela bada, kazuelatik aterako ditugu. Halaber, txanotik pasatuko dugu saltsa eta gutxitzen utziko dugu.

Azkenean, txekor-masaila bakoitzetik bi xerra aterako ditugu. Zerbitzatzeraokan saltsa gehituko dugu. Nahi izanez gero, plater hau txanpinoiekin eta entsaladarekin jan daiteke.



Zerurena jatetxea Sondikan.

CRESTERIN IAZI

Eguneko menua eta Menu berezia

ABI 80101 - 7 - BILBAO 48 901 21 92 - 10000 parral

LEKE'S JATETXEA

S.L.R.

LEKE'S BILBO

Sondikan, 7 - Bilbo - 48 901 21 92 - 10000 parral

RESTORANTE

Exterior view of the restaurant building.

Kudeaketarako Sorketateko Birziklaketako Zentro Aurreratua

SOGECAR

Tortxarregaltzi Ind. s/g 48170 Zamudio

Telefonoa: 844 577 177 - Faxa: 844 577 618

Tratamendu lemoak

- Erabiliteko oliuak
- Agortutako taladrinak
- Disolbatzaileak
- Automozio
- hondakinez kudeaketa osoa

IATXIN BAYUNA

ILEAPAINDEGLA

LEKE'S BILBO BILBOA

48 901 21 92 - 10000 parral

URDU 1000 JARRUGITUA

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Maritxu"

Arrate Egaña

"Sasi guztien gainetik" bildumaren ipuin polita dogu hau. Izaro eta Maritxu Teilatuko dira pertsonaiak eta naturarekiko errespetua barneko gaia.

"Ordaina zor nizan"

Joxemari Arteaga

Argazkilaria da Justo, gizon lasaia, behintzat gutun anonimoak, argazki zatiekin jasotzen hasi ordurarte. Inguruko txantxa edo zerbait larriagoa ete dan susmoak dauz.

DISKOAK

"Oihan"

Bidaia

Talde hau osotzen daben laukotekoek Euskal Herriko folk doinuak, ohiko ez diran instrumentu eta erritmoekin nahasten dabez. 14 abestiz osatuta dago diska hau, letrak eta musikaz Mixel Ducau, Carolina Phillips (taldekideak) eta Aitor Sarasua.

Mendebala eta Arrosako festibalak

Lehenengoa Sopuertan izango da uztailaren 4-5ean eta bertan Kantauri itsasoko musikak eta kultura parte izango dabe: Luar Na Lubre, Budiño, Tapia eta Leturia... Behenafarroako Arrosako zelaietan (uztailak 4-5-6) "Euskal Herria Zuzenean" izeneko ekitaldian nahasketa gehiago egongo dira. Okzitanoak, jamaikarren ska eta Euskal Herriak, Sorkun, Sagarroi, Skunk, Okabe

DENBORA PASA

Letra zopa

Aurkitu Euskal Herriko zazpi herriren izenak

Z U E T E Z A R N U
 A Z R G A Z O I T Z
 Z I R R O A A Z N T
 P I E G R R E E B A
 D O N A P A L E U R
 U A T T M E R I K I
 Z B E D A D N Z O T
 L A R R A Ñ E A I Z
 G I I N A L A T O E
 G A A N I K R A M A

Donapaleu, Uztaritze

Erantzuna: Markina, Maestu, Errenteria, Zangoza, Larrãne,



Agenda

Irteerak

Derio

Araban Euskaraz. Ekainak 8. Oion. Tximintx taldeak antolatuta.

Zamudio

Kobak ikustera, hondartzara, igerilekuetara, planetariumera, Iruñera... Uztailean zehar.

Txorierriko herri guztien artean antolatuta

Rafting-a. Uztailak 6. Arroyon (Kantabria).

Multiabentura(rokodromoa, tirolina, kayak...). Uztailak 20. Friasen (Burgos).

Raid (kayak eta espeleologia). Uztailak 27. Valdivieso aranean (Burgos).

Kanpaldiak

Zamudio

Zuhatza irlara. Uztailean. (Nahiz eta oraindik nora ez jakin, beste leku batera ere joateko asmoa du Udalak)

Gazte kanpaldia. Ekainak 25, 26 eta 27 San Bartolome baselisan. Zamudioko Gazte Asanbladak antolatuta.

Kirola


Zamudio

Futbito txapelketa, uztailean. Ekainaren 23ra arte eman daiteke izena.

Lezama

Futbito txapelketa uztailean.

Tenis uztailaren 14tik 30era arte eta abuztuaren 1etik 29ra arte kiroldegian, Bizia Kirol taldeak antolatuta.



Filmak eta antzerkia

Sondika

800 balas, uztailak 1. **Mision Cleopatra con Asterix y Obelix,** uztailak 8. **Minority Report,** uztailak 15. **El otro lado de la cama,** uztailak 22. Gaztetxean.

Contigo en la distancia antzezplana, Oliver Productions taldearen eskutik. Uztailak 10. Gaztetxean.

La cebra enamorada antzezplana, Oliver Productions taldearen eskutik. Uztailak 24. Gaztetxean.

Umeentzako ekitaldiak

Zamudio


Kirola, eskulanak... Uztailean zehar.

Kontzertuak

Sondikan

King Minister. Ekainak 3. Gaztetxean.

Elemento. Ekainak 24. Gaztetxean.



270000 DEKORAZIO ERAGILEKIN ETORRI
KONKRETUAK, KORTAZIOAK
KONKRETUAK, KORTAZIOAK
KONKRETUAK, KORTAZIOAK
KONKRETUAK, KORTAZIOAK

SANTI MIAMI
KONKRETUAK, KORTAZIOAK

PIPIKA IKUSLAN

Enpresa, enpresa
Enpresa, enpresa
Enpresa, enpresa
Enpresa, enpresa

Uztailak 7/8ak: 71 00 21 77 42 00 00

GUEDAN

Enpresa, enpresa, enpresa, enpresa, enpresa, enpresa, enpresa, enpresa

ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN

MENFORSA S.A.

ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN

ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN

ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN

ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN ENPREN



Etorkizuna Eraikitzen

Garapena eta Ingurugiroaren artean.
Teknologia eta Enpleguaren artean.
Banaezina.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

atera gorria!



bbk=

www.bbkk.es

BBK26=

abantaila eta deskontu pila